



## Mende erdia euskaraz

Iñigo Aritza ikastolak urteurrena ospatuko du aurten / 2-4

**Mankomunitatearen UtzubarEKOguneko konponketa txokoa dagoeneko hasi da bisitariak hartzen** / 7

**Irurtzunen, Bakaikun eta Iturmendin Trinitatea ospatuko dute. Etxarrin bi festa egun dituzte** / 13

**Sakanako Atletismo Egunak modalitate ezberdinak gertutik ezagutzeko aukera eskaini zuen** / 18-19

**Sakanako Bargagain 2021eko Nafarroako taekwondo klub onena izendatu du federazioak** / 20

**La Topadora-k bi abesti berri aurkeztu ditu; kontzertua emanen du 17an, Olaztin** / 23



Leire Baztarrika Sanz eta Olatz Aldaz Olmedillo Iñigo Aritza ikastolako zuzendaria eta lehendakaria.

# Euskaraz txioka haritzan

Hezkuntza eredu propioa, euskalduna, euskal kulturaren oinarrituta eta murgilduta, bere material propioarekin. Hortxe ikastolen ezaugarrietako batzuk. Horretan mende erdi egin du Iñigo Aritza ikastolak, urteurrena ospatuko duenak

**Eneida C. M. / Alfredo A. I.**

URDIAIN / ALTSASU / OLATZAGUTIA / ZIORDIA Hamarkadetan euskararen hegoaldeko muga Sakana izan zen, nahiz eta bertako herri askotan euskara aspaldi galduta zegoen. Joan den mendeko 70. hamarkadaren hasieran euskara Urdiainen bizirik zegoen, ez, ordea, Altsasun, Olatzagutian eta Ziordian. Folklorearekin lotutako jardueretara mugatzen zen euskararen presentzia hiru herri horietan. Baina herritarren artean bazegoen hizkuntza galdu izanaren kontzientzia. Euskara-

rekiko kezka bazegoen eta beste herrietan ikastolak sortzen ari zirela ikusten zuten.

Vianako Printzea erakundearen bidez Nafarroako Diputazioak euskarari "arnas" ematen zion. Amadeo Marco Ilincheta presidentek esan zuenez: "Nafarroa euskararen aldeko ekintzetan aitzindaria da. Gurasoek hala nahiko balute ez legoke inolako arazorik Tuteran ikastola bat sortzeko". Hori entzunda Vianako Printzea erakundeko kide zen Jose Mari Satrustegi Zubeldiaren gana aholku bila jo zuten

Antonino Urtasunek, Pablo San Romanek eta Ramon Mendiak. Taldea eratu eta gurasoen artean ideia zabaldu, matrikulatze karpaina egin eta ikastola abiarazi zuten 1971n.

Euskarazko irakaskuntzan herrian aitzindaria. Hasierako guraso haiek ikastetxeak aurrera eginen zuten ziurtasun faltarekin bizi behar izan zuten hainbat ikasturtetan. Horrek guraso batzuk seme-alabak ikastolatik ateratzea ekarriko zuen. Gainera, batzuek harrera txarra egin zioten ikastolari eta esamesa

## Ikastolaren antolaketa

Ikastola guraso kooperatiba baten jabetza da. Batzarrean zuzendaritza batzordea aukeratzeko erabakitzen dute. haren baitan hainbat batzorde eratzen dira: ekonomia, mantentzea, kirola... Zuzendaritzaren barruan zuzendaritza murriztua dago honakoek osatzen dutena: lehendakaria, lehendakariordea, idazkaria, Nafarroako edo Euskal Herriko Ikastolen Elkarteko ordezkaria, zuzendaria eta batzorde bakoitzeko ordezkari bana. Bi astean behin elkartzen dira eta "sortzen direnak edo arazoak kudeatzen" dituzte.

Urtean bitan gurasoek batzarra egiten dute, informazioa eman eta kudeaketari buruzko erabakiak hartzeko. Zuzendaritza batzordearen zati bat berritzen da urtero. Bestalde, familiek urtea zehar hainbat auzolan egiten dituzte: konponketa, garbiketa, Nafarroa Oinezetan parte hartzea, sanferminetako barraka eta beste.

## Pedagogia antolaketa

Ikastolako zuzendaritza taldea osatzen dute zuzendariak eta Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako koordinatzaileak. Eguneroko antolaketari dagokionez, hezkuntza etapa bakoitzak astero bilera egiten du, koordinazioarako, hausnarketarako eta hartu beharreko erabakiak hartzeko. Horretaz aparte, ziklo bilerak ere izaten dituzte. Koordinazioa orientazio departamentuarekin, tutoreek erregulartasunez egiten dituzten.

Hilean behin edo, lantalde bilerak eta klaustrak ditugu. Klaustron irakasle guztiak daude. Etapez gaineko hainbat gai edo atal landu behar direnean inter-etapetako egitura dugu: lantaldeak, klaustru guztiaren parte hartzea duena. Proiektuen baitan lantzen dituzte gaiak: hizkuntza proiektuarekin zerikusia duena (lehen euskara batzordea zena); komunikazioa, zer egin zer ez, nola ari garen egiten; beste lantalde batzuk tutoretza eta hezkidetzatik heldu dira.

ugari zabaldu ziren hasieran. Kritika gaiztoak entzun zituzten. Jatetxe, denda eta fabriketara dirua eskatzera joaten zirenean erantzun txarrak ere jaso zituzten. Baina aldekoak ere izan zituzten, sustatzaileen borondateak trabak gainditu zituen. Eta denetarik gabeziei aurre egin behar izan zieten: espazioa, materialak, irakasleak, soldatak...


Ikastolaren aurreneko urteetan ikasleek ez zuten eskolaratze txartelirik. Horren faltak kezka eta ezinegona sortzen zuen Nafarroako makina bat ikastolatan. Altsasukoak azkenean lortu zituen, San Fermin ikastolaren bitartez izan bazen ere. Altsasuko ikastolaren sustatzaileendako pozerako egun handia izan zen hura. Legezkatzea ere bi epetan

iritsi zen: Oinarrizko Hezkuntza Orokorra 1981ean eta eskolaurrea 1990ean.

Gurasoen abalarekin bankuek emandako maileguak, Nafarroako Diputazioak irakaskuntza pribatu gisa ematen zituen dirulaguntza "murriztuak", zozketak eta beste izan ziren finantzazio bideak. Diru larritasunak ikusita Gipuzkoan ikastolek antolatzen zuten Kilometroak festaren moduko antolatzea erabaki zuten Etxarri Aranazko eta Altsasuko ikastolek: Nafarroa Oinez. 30.000 bisitari, 3,5 milioi pezetako irabaziak (21.035,42 euro) eta oilasko asko utzi zuten festak.

### Segida


Esther Garaialde Katarain irakasle eta zuzendari ohia Iñigo



**EGOKI**  
Ventanas PVC Leihok  
www.ventanasegoki.com

**KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA**  
egoki@ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea



Aritza ikastolako memoria bizia da. Ez dizkio alferrik 42 urte eskaini. 1980an, 21 urte betetzeko zituela, irakasle ikasketak despeditu berri, Olatzagutiko ikastolako zuzendaritzan zegoen familia batek, apika, lehendakariak, hots egin zion. Irakasle has-teko prest ote zegoen galdetu zioten. Berehala eman zuen baiezkoa. Gida baimena atera, Seat Panda autoa erosi eta ikasturtea hasita Olatzagutian irakasle hasi zen.

Gogoratu duenez, "garai hartan bi irakasle zeuden Olatzagutiko ikastolan. Bi gela zeuden, 2 eta 5 urte arteko umeekin. Ikastola oso txikia zen, oso ume gutxirekin. Baina oso oroitzapen politak ditut, maitasun handiz gordetzen ditudanak". Etxeto zahar bat zen, bi gela, komuna txiki bat. Dagoeneko ez dago eraikina. "Xumea zen, baina, aldi berean, oso familiarra zen ikastola, konfiantzazkoa. Gurasoek eta umeek planak elkarrekin egiten genituen. Nire autoan gelako umeak sartu eta edozein egunetan Urbasara joaten ginen", azaldu du Garaialdek. Zortzi ikasturte eman zituen Olatzagutian, eta Ziordiko familia gutxi batzuk Olatzagutiko ikastolan seme-alabak matrikulatzearen lekuko izan zen 1982an.

Olatzagutikoarekin batera Urdiaingo Ikastola ere martxan zegoen. Bateko eta besteko irakasleak koordinatzeko, etapa bileretarako, klaustroetarako Altsasuko Iñigo Aritza ikastolara joaten ziren. Eta Garaialde zuzendaria izatera pasa zen: "bat-batekoa izan zen, eta inkontziente xamar izan nintzen. Ez naiz damutzen, baina hala izan zen". Ilbeltzean, ikasturtea hasita zegoela, zegoen zuzendariak alde egin behar izan zuen eta zuzendaritza berria izendatzeko beharra mahai gainean jarri zen. "Printzipioz ikasturtea bukatu arte izan behar zuen, gero ikusiko da nola moldatu. Klaustroak zuzendaritzarako propo-

samena egin zidan eta onartu nuen. Eta zuzendaritzan 26 urte egin nituen", laburbildu du Garaialdek.

Esperientzia, aitortu duenez, "ez zen erraza izan. Lasterketa baino, 26 urteko maratonia izan zen: zailtasunak, trabak, mehatxuak, oztopoak, dirulaguntzarik ez... Horren gaineratik, niretako oso balorazio positiboa egiten dut, bai pertsonal bai profesional arloan. Zailtasunak gure historiaren ezaugarrietako bat dira, eta horrek ere indartsu egiten gaitu. Horregatik, aurrera egin izan dugu beti, eta ziur naiz horrela jarraituko dugula".

Basamuturreko ikastolaren eraikinean egindako erreforma

etalanen lekuko izan zen Garaialde. "Baina eraikina ere handitu egin da". Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza hartzeko, esaterako. Eta haur ikastola bat zerotik sortzen ikusi zuen Garaialdek: Txioka. Azaldu duenez, "Ikastolan, betidanik, bi urteko haurrak hasi izan dira. Lege berriak zirela eta, derrigorrez hiru urtetik aurrera hasi behar ziren. Eta bi urteko haurrak hartu nahi bagenituen edo matrikulatu behar baziren ikastolan, 0-3 ziklo osoa eskaini behar genuen. Erronka horri heldu genion. Gainera, ikusita eskualdean zerbitzu hori ez zegoela, edo zegoenak ez zuela asetzen gure

nahia, Txioka haur ikastola sortu zen". Kabi horretatik ikasle asko pasa dira Iñigo Aritza ikastolara.

#### Ikastola DNA

Iñigo Aritza ikastolako lehendakaria da Olatz Aldaz Olmedillo eta gogorarazi duenez, "ikastola sortu zenetik guraso kooperatiba da eta hala jarraitzen du". Gaineratu duenez, gurasoek, ikasleek, irakasleek eta langileek parte hartzen duten komunitate bat eratzen dute guztien artean. Komunitate horretan 196 bazkide daude eta 307 ikasle.

Langileak ia 50, eta haietatik irakasle 36 bat. "Garai batean bezala, gaur egun ere, guraso eta irakasleen harremanak hala segitzen du, dena ongi ateratzeko". Aldazek ikastolan ardatz dituzten baloreak nabarmendu ditu:

"lehenengoa, euskararen erabilera, eta euskal kulturaren ezagutza gure hurrei erakustea. Bestea, hezkuntza propio bat izatea eta seme-alabei erakustea. Eta, azkenekoa, elkarlana".

Azken horren ezaugarri nabarmenena auzolana dela esan du: "proiektua aurrera ateratzeko komunitate osoaren partaidetza beharrezkoa da, bestela ezin zenuke". Aldazek ziurtatu duenez, gurasoek zeregin eta ekarpen asko dituzte ikastolatan: "hara joan eta han konturatzeko zara guztiok elkarrekin edozer gauza egiteko gai garela. Hori polita da. Badira haserreak, barreak... baina gelditzen dena positiboa da. Gure ekarpena hor, ikastolan gelditu da. Gure gurasoengandik ere hori ikasi dugu. Hori utzi digute eta guk seme-alabei berezitasun hori utzi nahi diegu. Ikastolak ematen duena, berezitasun hori badago".

Garaialdek laburbildu duenez, "talderik gabe ez dago proiekturik. Halako mugimendu bat, sarea, ezin da eraiki bakardadean edo. Protagonismoa taldearena da". Ikastolako egungo zuzendaria da Leire Baztarrika Sanzek

## Urteurren ospakizuneko egitaraua

**11:30** Haurrendako tailerrak, lortia zabalgunean

**12:30** Ekitaldi nagusia, lortia zabalgunean.

**13:30** Kalejira Sakanako trikitilariak taldearekin.

**14:30** Herri bazkaria, Burunda frontoian

**16:00** Haurrendako jolasak Zirimola taldearekin, lortia zabalgunean.

**16:30** Dantzaldia Trikidantz taldearekin, lortia zabalgunean.

Bazkarirako txartelak domekara arte daude salgai: Urdiainen Kaluxan, Altsasun ikastolan, Biltoki, Urtzi eta Lezea tabernetan, Olatzagutian Barandi tabernan eta Ziordian Urbasa tabernan.

nabarmendu duenez, "ikastolen mugimendua eta proiektua ez da hezkuntza hutsa. Proiektu batean sinisten dugun pertsonok osatzen dugun komunitate hori. Beti badago hor ikastolaren hobe beharrez egite hori. Eta azken 50 urteetan zenbat egon diren buru-belarri Iñigo Aritza ikastolaren ibilbidea aurrera jarraitzeko. Ezin da neurtu". Garaialdek azaldu duenez, beretako ikastola "bizitza proiektu bat izan da. Eskubide bat. Konpromisoa. Sekulako esperientzia, pertsonala eta profesionala. Adiskidetasuna baita ere".

#### Babesa

Guztira 115 ikastola daude. Iñigo Aritza Nafarroako eta Euskal Herriko ikastolen elkarteko kidea da. Baztarrikak azaldu duenez, "jakitea telefonoa jaso eta norbaitek erantzunen bat emanen dizula edo saiatuko dela, hori da sarea. Bestela bakoitza gurera ibiliko ginatke. Zuzendaritzan gutxienez zalantza asko sortzen direlako, eta batzuetan hori behar izaten duzu". Horri "balio izugarria" aitortu dio. Argitu duenez, irakasleria sareak ere badaude elkartean. "Foroetan jendeak partekatzen du zer egiten duen, zalantzak... Izugarritzako egitura bat dago eta bakoitzak gure es-



IÑIGO ARITZA



IÑIGO ARITZA

parrutik, elkarrengandik ikasteko gogo horretatik, eta elkarri laguntzeko gogo horretatik".

Garaialde gaur egun Euskal Herriko Ikastolen Elkarte laneari ari da, "Donostiako egoitzan hainbat talde eta departamentu daude". Hura ere komunitatetzat du. Izan ere, "Euskal Herriko ikastoletako profesional eta partaidez osatutakoa. Nire ustez gure funtzioa da sareko ikastolei zerbitzua, laguntza ematea, hainbat proiektuetan akonpainamendua ematea". Gaineratu duenez, "izaten da prestakuntza eta beharrak detektatzea eta horri erantzutea. Administrazio eta instituzioekin harremanak hemendik eramaten dira. Eta materialaren sorkuntza dago. Hori ere ikastoletan dugun ezaugarri propio bat da".

Bere egungo lanari dagokienez, esan duenez, "ikusten ez den, baina sentitzen den lana egiten Euskal Herriko proiektu batean". Ikastolako zuzendaritza utzi eta Txio kara bueltatu zen irakasle. Han zegoela elkartearen Haur Hezkuntzako laborategia deitzen dioten departamentuko kide izateko proposamena jaso zuen. Hasieran astean behin, ostegunetan, joaten zen Donostiara, eta gainontzeko egunak Txio kan ematen zituen. Baina, pitteka, Altsasu Donostiagatik aldatu eta han lan egiten bukatu du.

Azken hiru urtetan lanaldi osoan Donostian dago, Haur Hezkuntzarako oinarrizko emozioen programa egiten. "Niretako luxua izan da, oso lan desberdina izan baita. Sorkuntzan aritzea niretako berria izan da. Beste gauza batzuk sortu behar izan ditut, baina halako materialik ez. Eta, gainera, emozioen arlo horretan... Benetan izan da oso polita! Buakaera polita izan behar dut. Emozionatuta, emozioekin bizi, emozioetan hezi... Bai, polita!"

### Etorkizuna

Hirurek ikastolek aurera eginen dutela uste dute. Garaialdek eskaera egin die "jarraitu behar duzueinei eta erreleboa hartzen duzueinei: nortasun ezaugarri horiek zaintzea, mantentzea, ez galtzea". Klabe batzuk ere eman ditu: "oso inportantea da oso garbi izatea, eta identifikatuta izatea, beharrak eta gure indarguneak. Jakitea eta ados egotea komunitate osoa nor garen, nora joan nahi dugun, zertarako gauden hemen eta hori nola eginen dugun. Lau galdera horiek erantzuteko gai bagara, bidean gaude".

Ikastolek zergatik jarraitu behar duten galdetuta, zuzendari ohiak uste duenez, "administrazioak,

oraingoz behintzat, ez dituela gizartearen sektore baten beharrak asetzen, ikastolek eskaintzen duguna. Esan dugu ikastolak euskararen eta euskal kulturaren ardaztutako eredu bat direla, eta planteamendu hori eskaintzen dugu. Eta uste dut, momentuz, bakarrak garelako horretan. Hezkuntza eredu propioa garatzeko konpromisoa dugu, eta konpromiso horri heldu diogu; hasieratik, eta horretan jarraitzen dugu".

Garrantzia eman dio ikastolen eta proiektuaren titulartasunari. "Horretan ere bakarrak gara. Herrian jaiotako eskolak dira, titulartasuna soziala da. Horrek aukera ematen du antolatzeko

eta kudeatzeko garaian eredu propio bat. Ez dago hezkuntza munduan beste eredu bat halakorik duenik. Eta gero sare bat osatzen dugula. Sare solidario bat gara eta Euskal Herrian zehar

gaude". Baztarrikak gaineratu duenez, "erronka asko" dituzte. "Momentuan momentuko gizar-teak erronka desberdinak izan ditu. Eta, noski, orain ere erronkak ditugu".



## Historia laburra

**1969** Olatzagutiko ikastola zabaldu zen.

**1971-07-04** Altsasuar talde bat udaletxeko batzar gelan bilera egin eta handik ikastolaren aldeko lantaldea atera zen: Enrique Ochoa de Eribe (zinegotzia), Pedro Arratibel (irakaslea), Eliseo Gorospe (Lagun Onak elkarteko bazkidea), Antonio Espinal (apaiza), Patxi Irigoien, Jose Luis Zubiria eta M<sup>a</sup> Cruz Arregi (Gure Etxea elkarteko kideak), Javier Ignacio Aristorena, Estrella Negro, M<sup>a</sup> Teresa Soria, Ramon Mendia, Santiago Barcenilla eta Antonino Urtasun (gurasoak).

**1971-07-24** Lan taldeko kideen artean lanak banatu zituzten.

**1971ko iraila** San Joan kaleko 56. zenbakian zegoen 150 m<sup>2</sup>-ko bajera batean ikastola ireki zen. Mikele Aierdi irakaslea 2 eta 4 urte arteko 39 neska-mutilekin hasi zen.

**1972ko iraila** Mikele Aierdi eta Alazne Merzero ziren irakasleak.

**1972-1973** Urdiaingo ikastola 20 ikaslerekin hasi zen. Edurne Iriarte izan zen lehen irakaslea.

**1973-1974** Udalaren Garbitoki eraikinean ikastolaren hiru gela kokatu ziren. Hirugarren irakaslea Iñaki Redin izan zen, eta tituluduna zenez, koordinazio ardura eman zioten.

**1973-10-09** Nafarroako ikastolen eguna hartu zuen Altsasuk.

**1975-1976** Etxarri Aranazko Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko (OHO) ikasleak Altsasura joan ziren.

**1977** Ikastolei lege nortasuna emateko Sakana guztiko gurasoak hartzen zituen San Miguel de Aralar kooperatiba sortu zuten.

**1977-1978** OHOk lehen promozioaren irteera.

**1979-09-15** Iñigo Aritza ikastola mustu zuten. Eskolaurreko gelak Domingo Lumbier eraikinean zeuden.

**1981-06-17** OHO legeztatu zen. Zortzi gela eta 320 ikasleri eragin zien.

**1981-06-21** Lehen Nafarroa Oinez, Urdiain eta Altsasu arteko sanpedrozelaian. Sakanako ikastolek 586 ikasle zituzten.

**1982-1983** Estreinakoz Ziordiko ikasleak hartu zituen Olatzagutiko ikastolak.

**1985-09** Etxarri Aranazko ikastolak bere bidea hartzen du eta Altsasukotik ekonomikoki bereiztea erabaki zuen.

**1989** Irrintzi kultur programa garatu zuen ikastolak, tartean Joe Cockerren kontzertua zegoen.

**1990-07-13** Eskolaurrea, Haur Hezkuntza, legeztatu zen.

**1992-1993** Urdiaingo ikastolaren azken ikasturtea.

**1993-10-24** Nafarroa Oinez hartu zuen Altsasuk. Dirua DBHko gelak eta frontoia egiteko erabili zen.

**1995-1996** Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasketak eskaintzen hasi.

**1996** Altsasuko ikastolaren 25. urteurrena. 1998 Altsasuko Udalak utzitako Domingo Lumbier eraikinetik Navarra Villoslada eraikinerara pasa zen Haur Hezkuntza

**2005-10-16** Nafarroa Oinez Olatzagutia eta Ziordia artean ospatu zen. Haur Hezkuntzako eraikina egiteko dirua lortu zen.

**2008-09-20** Txio ka haur eskola mustu zuten. 2009. KEI Kalitate Egitasmo Integrala saria jaso zuen Euskal Herriko lehen ikastetxea izan zen. 2011. Olatzagutiko ikastola ixtea. 2014. EKI proiektua martxan jarri zen. 2016. Haur Hezkuntzako KABI proiektua martxan jarri zen. 2017. Lehen Hezkuntzan ADAXKA proiektua martxan jarri zen.

**2018-10-21** Nafarroa Oinez Altsasun ospatu zen. Dirua ikastolan konponketak egin eta galdara berrirako erabili zen.

**2022-06-18** Iñigo Aritza ikastolak 50. urteurrena ospatuko du.



ASTEKOA

RAF ATXURI

## Pedro Salaberri, ederprintzak agerian

Xabier Morras, Juan José Akerreta, Pello Azketa edo Jose Ignacio Agorreta izan zitekeen, baina Pedro Salaberri Zuntzarreni fortunatu zaio aurtengoan Vianako Printzea Saria. Bazen garaia arte plastikoetako ordezkari batek Foru Erkidegoaren kulturgintzaren goi-ohore hau jasotzeko.

Iruinxeme prestu eta petoa, ibilbide luzekoa dugu Salaberri edermargo kontuetan. 60ko hamarkadan pintzela, margoak eta mihiseak taxuz eta trebe astintzeari ekin, eta beste zenbait artistarekin batera, lehenago Basianok eta Zigak landuriko alorra, nafar margogintza alegia, bi kokxa gorago ekarri zuten, irudi zoragarri osatu ondare batez.

Arkitekturaren inguruan hasi, koadroak ondoren, antzerki eszenografiak gero... Ospe handiko 72ko Iruñeko Arte Topaketan ere aritu zen Salaberri. Haren emaria etengabea eta oparoa da eta oraindik orain grinaz lotzen zaio sorkuntzari.

Gaztetan mendizale fina izaki, ez da harritzekoa haren *leit motiv* nagusiak Iruñerri inguruko bazterrak izatea: mendiak, Pirinioa, euskal kostaldea, Bardea... Haiengandik gai poetikoa eta lilura ateratzen du lanketa harrigarri batez. Naturaren behaketa patxadatsu eta xehea garatzen du, margo-orban lau

eta zabalekin, sentsazio bare, sakon eta iradokizunez beteak lortuz.

Izadia, hiritar zein larretar, haiku piktoriko bilakatzen duela aipatu dute kritikariek eta egia da halako sorgintze bat eragiten duela ikuslearen begiradan: ilunabar lausotuak, mendi magalen loratze zein zimeltzea, zeru-ertz nabartuak, garizelari ferekatuak... Natura berbizitua era berbisitua.

Bejondeiola Salaberriri, eta margo berri on.

HARA ZER DIEN

## Berridatzi ditzagun jaiak!

SAKANAKO BERTINTASUN ZERBITZUA

Aurten, azkenean, bueltan dira herrietako jaiak eta ospakizunak eta baita ere, aisialdi eta drogak kontsumitzeko espazioak. Pandemiak eragindako etenaldiaren ondoren, aldatzeko eta jaiak berridatzeko garaia iritsi da.

Jaiak berridatzeko aukera bikaina dugu orain. Hausnarketarako denbora izan dugu, eta orain hausnartutakoa martxan jarri behar dugu. Jaiak alkohola eta bestelako drogak kontsumitzen diren espazioak izan ohi dira, horien kontsumoak eragin

desinhibitzailea izan dezake, baina inoiz ez da justifikazioa izango indarkeria ekintza baterako edo emakumeak sexu objektu huts gisa tratatzeko.

Baina, ez soilik indarkeria fisikoa, mikromatxismoekin amaitzeko garaia ere bada. Horiek izan daitezke, bai sinbolikoki erabiltzen diren irudiak, erabiltzen den hizkera, jardueretan edo eskaintza kulturaletan dagoen emakume kopurua, auzolanean prestatutako bazkarietan edota muntaketetan bakoitzak hartzen duen rola eta ardura.

Horren harira, ezin dugu ahaztu Nastaten Bizi Baldintzei buruzko inkestaren arabera, urtean zehar emakumeek gizonen baino 43 minutu

gutxiago dituztela aisialdirako astegunetan eta 65 minutu asteburuan. Emakumeak arduratzen dira dedikazio handiago eskatzen duten etxeko lanez, hala nola janaria prestatzeaz edo arropa zaintzeaz. Beraz, jaietan ere arduratsua izan, eta zaintza lanak denon artean banatu.

Horrenbestez, jaiak gozatzeko espazioak dira, eta horiek horrenbestez seguruak izan behar dira pertsona guztientzat. Beraz, egin ditzagun gure herriko jaiak disfrutatzen gure seguruak, eta edozein eraso edo jarrera baztertzaila ikusiz gero ez geratu geldirik eta salatu ezazu! Identifikatzen, salatzen eta horiek eraldatzen lortuko dugu gizarte eta jai parekide eta berdintasunean oinarritutakoak!

GUTUNA

### Etxarriko Gazte Asanbladan mezube Etxarriko herriyai

INTZARA MENDINUETA LAZKOZ

ETXARRI ARANAKO GAZTE ASANBLADA

Mezu honen bitertes, ospakizun hiru egunok aurria atiatzen laundu dezubien guzietan eskerririk asko: sukeldeko, tiketerako, segurtasuneko ta barrako txandetan lan ein dezubien guzietan; egitarau oparua aurria atiatzen laundu dezubien norbanako zein eragille desberdinei (ikastola, multen talde, udala, herri kiroleto parte hartzaileak, elektrizistak, Etxarrin Kantuz, erraldoi eta buhaundiyen konparsa, bertsoleak, argazkilariek, ahotsako langille...); musika taldiek ta teknikuek; udaleko langillie;

tabernei; eta, oro har, Etxarriko herritarrei, beye, bereziki ikastolako patiyoko aldamenei.

Argi ikusia, ongi antolatutako herriyek helburu haundiyek lor ditzazkela. Auzo lanien ta herrittik herriyandako lanien seittuko diau.

Zorionak Etxarriko Gazte Asanblada! Zorionak Gaztetxial!

### Etxarriko Gazte Asanbladari esker onik baino ez

IGOR ARTIEDA GALDEANO, SUSANNA SUREDA ROMERO ETA IÑIGO ORELLA ALTZUETA

Lerro xume hauetatik herritar gisa gure esker ona, zoriontze eta aitortza zintzoa adierazi nahi dizkiogu Etxarri Aranzako Gazte Asanbladari

hamarkadetan egindako lan ikaragarriagatik eta bereziki herriari emandako asteburu bikainagatik.

Behin baino gehiagotan aditu behar izan ditugu kritikak egungo gazteriar buruz, baina guk harro esan dezakegu herriko gazteak bizirik zaudetela, Etxarri biziartzen duzuela eta herriari zuen onena eskaintzen diozuela. Antolakuntza maila eta ardura izugarria erakutsi duzue, belaunaldi desberdinetako jendea auzolan erraldoian batuz. Gaztetxe eta Asanbladaren urteurrena ospatzeko egitaraua kalitatekoa eta anitza izan da, adin eta izaera desberdinetan pentsatuz.

Ziur bidean eragozpen batzuk sortu direla, baina zuen alderik hoberena erakutsi

duzue oztopoak gainditzeko. Festa mundu guztientzat ahalik eta erosoan izan zedin eta herria txukun gera zedin ahalegindu zarete. Herritar askorentzat asteburu honen oroitzapen oso polita geldituko zaigu.

Herritik herriarentzat auzolanean autogestio eta herrigintza ariketa itzela gauzatu duzue komunitatea erdigunean jarriz. Demontren poleki!

Zorionak eta infernuko sube auspizten sei ziaun!

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremantarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / [gutunak@guaixe.eus](mailto:gutunak@guaixe.eus)

**guaixe**  
SAKANAKO ASTEKARIA

[www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)

GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika  
[info@gkomunikazioa.eus](mailto:info@gkomunikazioa.eus)  
948 564 275 (3 luzapena)  
619 821 436  
Ainhoa Etxeberria Pikabea  
[gk@gkomunikazioa.eus](mailto:gk@gkomunikazioa.eus)  
618 640 056

Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez  
[admin@guaixe.eus](mailto:admin@guaixe.eus)

Lege gordailua: NA-633/1995

Tirada: 3.200

Erredakzio burua:  
Alfredo Alvaro Igoa  
[guaixe@guaixe.eus](mailto:guaixe@guaixe.eus)

Publizitatea:  
Eneida Carreño Mundiñano  
[publi@guaixe.eus](mailto:publi@guaixe.eus)

Erredakzioa:  
Maider Betelu Ganboa  
[kirolak@guaixe.eus](mailto:kirolak@guaixe.eus)  
eta Erkuden Ruiz Barroso  
[kultura@guaixe.eus](mailto:kultura@guaixe.eus)

Koordinatzailea:  
Goizeder Anton Iturralde  
[fundazioa@guaixe.eus](mailto:fundazioa@guaixe.eus)

ARGITARATZAILEA:  
Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1.  
31800 Altsasu  
948 564 275  
618 882 675

Maketzailea:  
Irene Trecet Obeso  
[maketazioa@guaixe.eus](mailto:maketazioa@guaixe.eus)

LAGUNTZAILEAK

**Mank**  
s a k a n a

BAZKIDEAK



Gobierno de Navarra  
Nafarroako Gobernua



Gazte Euskaltzaleen Sarea Tolosan aurkeztu zenekoa. WWW.ATARIA.EUS

## Euskararen alde egiteko elkartu diren gazteak

Asteazkenean, 19:00etan, Altsasuko Gure Etxeko 1. solairuan Gazte Euskaltzaleen Sarearen aurkezpena

### ALTSASU

Apirilaren hasieran aurkeztu zuen bere burua jendaurrean Gazte Euskaltzaleen Sarea (GES). Korrikaren testuinguruan, Tolosan egindako jendaurreko aurkezpenean GESeko kideek adierazi zuten, bi helburu dituzte: "euskararen aldeko borrokan gazte ikuspegia txertatu eta belaunaldi oso bat borroka horretara batu". Bata eta bestea beharrezko ikusten dituzte Euskal Herri euskalduna lortzeko. Eragile euskaltzale berriak gazte mugimenduetan euskararen bueltan aktibatuta dauden norbanakoen eta eragileen atzerpe izan nahi du.

Estraineko agerraldi hartan nabarmendu zuten, "euskaraz biziko den belaunaldi izan nahi dugu, eta uste dugu belaunaldi moduan heldu behar diogula auzi horri". Aurkezpenean kezka azaldu zuten hainbat arlotan "atzerakadak" ikusten dituztelako, esaterako: euskararen borroka agortzea, motibazioa eta hizkuntzarekiko atxikimendua.

Euskaraz bizi nahi duen baina ezin duen belaunaldi direla adierazi dute: "hizkuntza zapalkuntza estrukturala den unetik, gure hizkuntzan bizitzeko neurriak hartzea da onartu dezakegun jarrera bakarra". Gazteek jokatzen duten paperaz kontzientzia hartu dutela diote, eta bide horretan laguntzeko sortu dutela sarea: "euskararen borroka fase berri bat berpizteko gaude hemen. Euskaraz bizi ahal izateko egiturak pitteka sortzen laguntzeko".

Maiatzaren 21ean *Euskara Aurrrera* leloa zuen manifestazioarekin Donostiako kaleak bete zituzten. Haren bidez nahi zuten jendeak jabetzea euskararen aldeko borroka oraindik beharrezkoa dela. Orain gazte eragile euskaltzaleak nazio asanblada deitu du. Usurbilgo Potxoenea kultur etxean izanen da hilaren 17an, 17:30ean. *Gazteok euskararen herria sortzen!* leloa du deialdiak. Asanblada horretan GESeko kideek heldu den ikasturteko plangintza zehaztuko dute, "aurrean ditugun erronkei erantzuteko". Euskararen egoerarekin kezkatuta dauden gazteei eta "borrokara batu nahi" dutenei parte hartzeko deialdia egin diete. Bi egun lehenago GESek bere burua aurkeztuko du Altsasun.

### Jatorria

GESen hazia bi ekitalditan ere izan zen: Barañainen 2016ko abenduaren 9 eta 11 artean egin ziren GaztEraiki topaketetan eta 2020ko Euskaraldiko Gaztealdian. Azken horretan Euskal Herriko hainbat txokotako bederatzi gazte bederatzi egunez euskara hutsez bizitzeko erronka egin bete zuten. Azken horren arrastoa utzi zien, eta balorazioa ikusita argi izan zuten "euskara gazteen aldetik borrokatzen eta hausnartzen jarraitu behar genuela" ikusi zuten. Sareari hauspoa eman diote Euskal Herriko Unibertsitateko Gasteizko eta Donostiako campusetako eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko euskara taldeek.

# Altsasuko auziko beste zigor bat beteta

Hilaren 4an bete zuen Aratzek zigorra eta ordutik aske da. Auziagatik epaitutako eta zigortutako beste bost altsasuar oraindik zigorra betetzen ari dira. Guztiak kalean daude eta kontrol telematikoa dute

### ALTSASU

Dagoeneko Aratzek ez du kontrolerako eskumuturrekorik ezta etxean gailu elektronikorik ere. Berak larunbatean bete zuen Altsasuko auziagatik Espainiako auzitegiek jarritako zigorra. Bai berak bai familiak esan dutenez: "azaldu diguzuen elkartasunagatik, bihotzez eskerrak eman nahi izan dizkizuegu bai Sakanan bai munduan eskubideen eta askatasunen alde egin eta borrokatzen duzuenei. Elkartasuna da indarra. Guztiak aske gelditu arte!"

Aratz 2016ko azaroaren 14an atxilotu zuen Guardia Civilak eta 36 egun preso egon ondoren epailetaren zain baldintzapean aske utzi zuten. Fiskalak berarendako lau terrorismo deliturerengatik 50 urteko zigorra eskatu zuen. Espainiako Auzitegi Nazionalak 2018ko garagarriaren 1ean emandako epaian bederatzi urteko zigorra ezarri zion hiru lesio deliturerengatik 6 urte eta 3 agintearen agentearen kontrako delituagatik. Epaia jaso eta bigarrenez 2018ko garagarriaren 5ean atxilotu zuten. Auzitegi bereko Apelazio Epaitegiak 2019ko martxoaren 7an emandako epaia berretsi zion. Azkenik, egitateak aztertu ondoren, Espainiako Auzitegi Gorenak 2019ko



Auzitegi Gorenaren epaia salatzen egindako manifestazioa. ARTXIBOA

lastailaren 9an eman zuen epaian 4 urte eta 2 hilabeteko zigorra ezarri zion Aratzi: 2,5 urte agintearen agentearen kontrako delituagatik. 2019ko abenduaren 20an atera zen kartzelatik azkeneko Aratz eta, ordutik, hirugarren graduaz zegoen urruneko kontrolarekin. Estreinakoz atxilotu zutenetik 2.028 egun pasa zirenean utzi zituen kontrol neurriak Aratzek. Bere zigorraren 599 egun kartzelan preso egin ditu altsasuarak.

Altsasuko auziagatik auzipetutako gainontzekoei dagokienez,

Ainarak eta Iñakik, dagoeneko zigorra bete dute. Ainarak kartzelatik pasa gabe, baina hainbat kontrol neurriekin izan da urtetan. Iñakik, berriz, 1.283 egun egin zituen zigorpean, haietatik 598 kartzelan preso. Gainontzeko bost auzipetuak hirugarren graduaz daude, ez dute kartzelara joan beharrik baina kontrol telematikoa dute. Adurrek, Jokinek eta Oihanek 2024ko maiatzean beteko dituzte zigorrak. Jonanen eta Julenen kasuan 2025eko lastailera arte segituko dute zigorra betetzen.

## Asteazkenean emaitzak jasotzeko zain daude ikasleak

Ibarreko 56 ikasleak Unibertsitatera Sartzeko Ebaluazioa egin dute aste honetan

### SAKANA

Egindako azterketen emaitzak jakin eta horrek nahi duten unibertsitate ikasketak egiteko aukera emanen dien jakiteko zain daude 56 ikasle sakandar. Asteartean hasi eta atzora arte Uniber-

sitatera Sartzeko Ebaluazioko azterketak egin zituzten Nafarroako Unibertsitate Publikoan. Herrialdean ebaluazioa pasa zuten 3.708 ikasleen artean zeuden sakandarrak. Haietatik 2.756 ikasle gaztelaniz egin zuten,

eta 952k euskaraz. Azken horien artean zeuden ibarreko 56 ikasleak. Haietako 48k Altsasu Bigarren Hezkuntzako Institutuan egin dituzte Batxilergoko ikasketak. Haietatik 41 ikasturte honetako ikasleak dira. Gainontzeko aurreko ikasturteko ikasleak, beraien nota hobetzeko probaldira aurkeztu direnak. Gainontzeko zortzi ikasleak Iruñeko Biurdana institutuaren bidez aurkeztu dira azterketetara. Irurtzungo bost ikasle eta Arakilgo hiru dira.

# Hondakin bilketarako kamioia erosiko da

Sakanako Mankomunitateak egindako deialdira enpresen eskaintzak hilaren 29ra arte aurkez ditzakete. Aurten bigarren eskuko beste kamioi bat erosiko du. Bestalde, hondakinen sorrera murriztu eta prebentzioa sustatzeko Kafe Konpondu martxan da

## SAKANA

Sakanako Mankomunitateak hiri hondakin solidoak biltzeko bi kamioi erosiko ditu aurten. Bat berria izanen da eta bestea bigarren eskuko eta, horretarako, 190.000 euro aurreikusita ditu. Ibarreko erakundeak dagoeneko lehen kamioia erosteko deialdia egin du. 13,01 m<sup>3</sup>-ko edukiera duen atzeko kargako kamioi biltzaile trinkotzaile bat eskuratu nahi du. Horretara 139.000 euro (BEZ kanpo) bideratu ditu. Ordainketa egiterakoan Mank-ek Nafarroako Hondakinen Partzuergoaren 114.000 euroko dirulaguntza izanen du. Kontratu eskuratzen duen enpresak hiru hilabete izanen ditu ibilgailua emateko. Bigarren eskuko beste kamioi bat eskuratu nahi du aurten Mank-ek eta horretarako 60.000 euro aurreikusitu ditu. Espainiako Gobernuaren Miter dirulaguntza deialdian aurkeztu dute erosketa hori eta oraindik ez dakite laguntza jaso duten edo ez.

Mank-ek 2019an eta 2020an kamioi bana erosi zuen eta bakoitzagatik 135.000 euro ordaindu zuen. Joan den urte bukaeran bigarren eskuko ibilgailu bat erosi zuen 59.500 euroren truke. Partzuergoak 42.000 euroko dirulaguntza eman zuen horretara



Mankomunitateko langilea kamioi berrietako bat garbitzen. ARTXIBOA

rako. Eta aurten egingen dituen bi erosketekin hondakin bilketa zerbitzuko ibilgailu flota zaharkitua berritzeko pausoak ematen segituko du.

## Kafe Konpondu

Sortzen ditugun hondakin kopurua murrizteko moduetako bat konpontzea da. Etxe tresna elektrikoak, altzariak, jostailuak eta beste konponduta haien bizia luzatu, dirua aurreztu eta hondakinak sortzea eragozten da. Horregatik konponketak egin eta haiek nola egin ikasteko Kafe

Konpondu jarduera herriz herri dabil egun hauetan. Saio horietan konponketetan trebeak diren pertsonak zerbait konpontzeko premia duten pertsonak harremanetan jartzen dira, eta giro ederrean objektuari bigarren bizitza emateko ahalegina egiten dute. Herriz herri dabilzanak hilaren hasieratik. Gaur Iturmendiko plazan egonen dira 17:30etik 19:30era, astelehenean Lakuntzakoan 17:30etik 20:30era, asteazkenean Etxarrengoan 17:30etik 20:30era eta ostiralean Bakaikukoan 17:30etik 19:30era.



Sakana Lanbide Heziketako ikasleak konponketa txokoa. UTZITAKOIA

## EKOguneko konponketa txokoa hasi da bisitariak hartzen

Mank-ek hondakinen murrizketa eta berrerabilpena helburu duten bi orduko tailerrak eskaintzen ditu

## SAKANA

Sakanako Mankomunitatearen Hondakin Zerbitzuak Arbizun UtzubarEKOgunea du. Han hondakinen kudeaketa egiteaz aparte, konponketa txoko bat martxan jarri dute aurten. Zerbitzuak eta Batuta Sakana elkarteak, gutun bidez, konponketa txokoa bisitatzeko gonbidapena egin diete ibarreko ikastetxe, kultur elkarte eta hainbat eragileri. Amaia Okariz Ormaetxea zerbitzuko hezitzaileak azaldu duenez, "hondakinen berreskurapena eta berrerabilpena helburu, bi orduko tailerrak eskaintzen ditugu konponketa txokoa. Han elkarrekin jostailuak, mozorroak, lorentziak edo bururatzen zaizkizuenak sortu ditzakegu hondakinak erabiliz. Bestela, etxe tresnak, jostailuak, bizikletak eta beste konpondu ditzakezue". Okarizek azaldu duenez, konponketa txokoa apirila eta gara-

garrila artean eta irailean edo lastailean egonen da erabilgarri, astegunetan goiz edo arratsaldean eta larunbat goizetan. Zehaztu duenez, 5 urtetik gorakoak joan daitezke. Beti ere, gehienez 20 pertsonako taldeak hartuko dituzte. Konponketa txokoa erabiltzen interesa dutenek 900 730 450 telefonora hots egin edo [info.hondakinak@sakana-mank.eus](mailto:hondakinak@sakana-mank.eus) e-postara idatzi behar dute.

Okarizek jakinarazi duenez, orain arte konponketa txokotik pasa direnak Lanbide Heziketa institutuko ikasle batzuk izan dira. Batuta Sakanako Luis eta Victorrekin hainbat gauza konpondu zituzten eta hezitzaileek UtzubarEKOgunea ezagutzeko bisita gidatua egin zieten. Irakasleek ikastetxean bisita urtero errepikatuzko proposatuko zutela esan zieten hezitzaileei. Ikasleei dagoen azpiegitura guztiak harridura sortu omen zien.



# ASKE MAITE ASKE BIZI!

bertako

igogailuak | ascensores

www.bertako.eus

NAFARROA 848 870 917

# ZURE PUBLIZITATEA

# HEMEN



Informazio gehiago:  
948 564 275 | 661 523 245  
publ@guaixe.eus  
guaixe.eus/publizitatea/







Ergoienako ikuspegia Lizarragatik. ARTXIBOA

## Ergoienako herriak berritzeko planeko lanak bidean

Udalak kontzeju bakoitzean 60.000 euroko balioa duten lanak egingen ditu Herri Berritze planaren barruan

### ERGOIENA

Lizarraga, Unanu eta Dorraoko kontzejuetako kideek Ergoienako Udalarari jakinarazi zizkioten beraien herrian zein lan egin nahi dituzten, eta ibarreko erakundea haiek egiteko tramitazioak egiten hasi da. Dirulaguntza batzuk dagoeneko jaso ditu, esaterako. Baina trabak ere badaude, izan ere, metalen prezioak asko garestitu dira azken aldian eta horrek atzera bota ditu hainbat enpresa.

Lizarragako Kontzejuak Bargagain tabernaren gainean 60 metro karratuko bi apartamentu egin nahi ditu, gerora alokatzeko asmoz. Horretarako, dirulaguntzaren zain daude kontzejuan. Lanak egin ondoren apartamentuak janzteko altzariak erosi beharko dira eta kontzejuak horretara bideratu nahi ditu Ergoienako Udalak emandako 60.000 euroak.

Dorraoko Kontzejuak udalarari honako lanak egiteko eskatu dio: herriko parkea berritu, handitu, adineko pertsonak ariketak egiteko tresnak jartzea; frontoian, led argiak jarri eta hainbat kirolean aritzeko materialak jarri eta elkarte atzean merendatzeko lekua prestatu, mahaiak bankuak eta barbakoak pare bat jarri. Gainera, Dorraoko eta Unanuko Kontzejuak elkarrekin lan bat egitea eskatu diote udalari: bi herriak lotzen dituen dermioko pista konpontzea, Dorraoko elizatik abiatzen dena. Dagoeneko dirulaguntza jaso du udalak. Unanuko Kontzejuak, azkenik, bi lan egin nahi ditu. Batetik, plazako paretak izerditzen duten ura jasotzeko lurrari jaitziera pixka bat eman eta paretetan bistako adreilua-edo jarri. Bestetik, eskola zen eraikina margotzea. Eta, azkenik, Beriaingo pistan kanadar pasa jartzea.

# Plazaolak webgunea eta gida berrituko ditu

Turismo partzuergoak Interneteko ataria berritu eta gida berri bat egiteko Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoen Departamentuak emandako dirulaguntza jaso du

### ARAKIL / IRURTZUN

Irabazi asmorik gabeko Plazaola turismo partzuergoko kide dira 43 erakunde eta 100 enpresa baino gehiago. Horien artean daude Arakilgo eta Irurtzungo Udalak. Partzuergoaren helburua landa turismo iraunkorraren alde lan egitea da. Horren berri emateko eta mundurako leihoa izateko [www.plazaola.org](http://www.plazaola.org) web orrialdea du partzuergoak. Horrekin batera, Plazaolaren eremuko turismo gida ere argitaratu izan du. Batean eta bestean Plazaola bide berdearen eta Aralar mendiaren berri ematen da. Baita alojamentu, jatetxe, taberna,

artisansu, saltoki, ekintza eta abarren berri ere.

Bai webgunea bai gida berritzeko 16.000 euroko inbertsioa egingen du Plazaola turismo partzuergoak orain. Aurrekontuaren %80 (12.800) dirulaguntza bidez ordainduko du partzuergoak. Izan ere, partzuergoak Nafarroa Ezagutu Sarea osatzen duten erakundeei zuzendutako Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza deialdiaren hamabost onuradunetako bat izan da. Foru administrazioak guztien artean 233.018 euro banatu ditu.

Aipatutako sare hori Nafarroako natura gunek babestuen, espazio bereziak eta ibilbideak

kudeatzen dituzten erakundeek osatzen dute. Sare horren barruan daude Aralar, Urbasa-Andia, Plazaola bide berdea eta ibarreko ibilbide sarea. Departamentuak bultzatutako deialdi horren helburua da Esplorazio Sareari lotutako espazioen lurralde garapen jasangarrian laguntzea, Nafarroako lurralde oreka eta iraunkortasun printzipioak (ekonomikoa, soziala eta ingurumenekoa) sustatuz; ekintzailtza, enplegu berdea eta gizarte ekonomia bultzatuz espazio eta ibilbide horien inguruan; eta natura, ekonomia, gizarte, kultura edo osasun ondarea balioetsiz.

## Gazte kooperatibistendako beka deialdia egin du udalak

Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundeekin atzerrira joanen diren gazteei zuzenduta dago

### ARAKIL

Arakildar gazteen artean garapen bidean dauden herrialdeetan kooperazio jardueren inguruan sentsibilizatu eta herrien eta kulturen arteko elkartasun kultura gazteen artean sustatzea.

Bi helburu horiek ditu Arakilgo Udalak egin berri duen beka deialdiak. Beka hori ibarreko 18 eta 35 urte arteko gazte kooperatibistek zuzenduta dago. Hala ere, udalak beka jasotzeko baldintza gisa jarri du eskatzaileak Arakilen bost erroldatuta egon behar dutela. Deialdiak 2.500 euroko poltsa du.

Beka eskuratzeko udalak jarritako beste baldintza bat da eskatzaileek Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakunderen batekin lan harremanik ez izatea. Gazteek lotu beharko dute bidaiak eta egingen duten lana, udalak hori posible egiteko beka emanen du. Beka deialdian interesa dutenek beraien eskaerak hilaren 23a baino lehen aurkeztu beharko dute udaletxean.



**BAKAIKUKO FESTAK**  
UZTAILAREN 22 TIK 26RA

Bakarrekotxea elkartea festetan alokatuko da. Elkartea handiaren prezioa 2.500€-koa izango da elkartea txikiarena 2.000€-koa. Eskaintzak uztailaren 4ko 21:00ak baino lehen aurkeztu behar dira.

Informazio +: [www.bakaiku.info/elkartea-festak](http://www.bakaiku.info/elkartea-festak)



**PORTUKO**

Altsasu: 948 563 822 (denda)  
948 467 153 (lantegia)  
Etxarri Aranatz: 948 460 988



**xapatero**  
taberna

Etxeko krocketak eta bokatak

948 460 162 · Etxarri Aranatz

# "Lortu dugu murrizketei galga jartzea"

**CARLOS ETXEBERRIA SAGASTUME** PENTSIÓ DUINEN ALDEKO MUGIMENDUKO KIDEA Astelehenean hasi eta hilaren 25era arte bizikleta martxa batek pentsio duinen aldeko aldarrikapena zabalduko du Hego Euskal Herrian. Sakanatik pasako da

## SAKANA

Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduaren I. bizikleta martxak 13 etapa izanen ditu; astelehenean hasi eta hilaren 25ean bukatuko da. Garagartzaroaren 20an Altsasu etapa bukaera izanen da, eta hurrengo egunean tropelak ibarra zeharkatuko du. **Hamahiru egun bizikletan eta pentsioen alde. Mugimendua sasoiko?** Bai. Lau urte egin ditugu eta kalean gaude. Egia da hainbat faktorek gutxitu dutela. Bost urte egitera goaz eta horrek desgaste bat eragiten du. Pandemiak jendea beldurtu du eta, hasierarekin alderatuta, mugimendua plazetan pixka bat gutxitu da. Baina sa-soitsu gaude gure aldarrikapenak aurrera eramateko. Horren proba da bizikleta martxa.

## Zergatik bizikleta martxa bat?

Joan den urtean Gipuzkoan egin genuen. Arrakastatsua izan zen. Ekimen polita da, sinpatikoa. Modu alai batean jendearekin konektatzea lortzen dugu. Herri



Carlos Etxeberria Sagastume.

## "OSO GARRANTZITSUA DA BANAKETA SISTEMA PUBLIKO BAT MANTENDU, ZIURTATU ETA BERMATZEA"

eta lurralde askotatik pasatzen gara eta horrek gure mezua zabalteko aukera ematen digu. **Lau urte, eta lorpenak izan dituzue.** Txikiak izan badira ere, lorpenak izan ditugu. Ez naiz horretan luzatuko. Dudarik gabe onerako eragina izan du, zeren, bestela, murrizketak gehiegi izanen lirake. Eta hori kontuan izan du Espainiako botere politikoak. Argi dago, mobilizaziorik eta borrokarik gabe ezin direla gauzak lortu. Hori da garrantzitsua. Lortu dugu galga jartzea murrizketei. Egia da egiturazko lokarriak ez ditugula askatu. Esate baterako, 2011ko erreforma ez da indargabetu. Eta erreforma berriek aurreko murrizketak finkatu dituzte aurreko murrizketak. Bestalde, Euskal Herrian erreferentzia bat gara. Kalean gaude astelehenero. Nik uste beste gizarte mugimenduendako eredu garena. Eta hori asko da. Hainbeste urte borrokan egotea garrantzitsua da, lekukotza ematen ari garelako.

**Erreformak aipatu dituzu. Joan den urtean baten lehen zatia onartu zen. Aurten bigarrena heldu dela dirudi.** Enpleguko pentsioen privatizazioa bulkatzen da. Diru publi-

koarekin dirulaguntzak eman eta enpresek kotizazioak ez emateko aukera aurreikusten da. Horrela privatizazioari bide ematen zaio, ez baita banaketa sistema publiko bat. Horrek eragin oso kaltegarria izanen du. Pentsioak kalkulatzeko urteez ere ari dira. Gaur egun 25 urtetan dagoena 35era luzatzeko aukera. Horrek esan nahi du etorkizunean pentsioak murriztu egiten direla. Hori ez da ona. Etorkizuneko ere oso kaltegarria da.

## Zer aldarrikatu nahi duzue?

Ziklo aldaketa bat eman behar dugula ikusten dugu. Orain arte asko zentratu gara lege erreformetan eta Estatuari begira aritu gara. Oraindik ere hor jarraitzen dugu. Hor dago bigarren paketea eta hori ez dugu begi bistatik kentzen. Arauak emateko boterea estatuak du. Baina, era berean, Euskal Herria begira jarri behar dugu. Bai Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako gobernuak eskumenak dituzte, esaterako, gutxieneko pentsioak osatzeko. Garrantzitsua litzateke hori lortzea, zeren hori ere Estatuarendako erreferentzia bat litzateke, gutxieneko pentsio hori hileko 1.080 eurora arte osatzeko.

Aldarrikapen zentrala hori da, baina beste bi daude. Horrekin batera zerbitzu publikoen defentsa egingen dugu. Ikusten dugu botere politiko eta ekonomikoek privatizaziorako bidea hartuta dutela, hemengoek ere. Zerbitzu publikoak irmoki defendatu nahi ditugu, bai osasun bai zaintza alorretan. Hirugarren aldarrikapena zaintza lanak partekatzea eta zabalte da. Oso garrantzitsua da. Gu pentsiodunak gara eta hori ere gure eremua ere bada. **Martxa dagoen bitartean herrietako astelehenetako kontzentrazioek segituko dute?**

Bai. Herriren batean gerta liteke astelehenetako bilkura martxa iristen den egunera aldatzea.

## Nola parte hartu daiteke?

Hogeiko tropel batek 13 etapak egingen ditugu. Gero lurralde bakoitzean jendeak izena eman du lehen astea egiteko edo hiruzpalau egun egiteko. Horrela egin nahi duenak izena eman behar du lo egiteko lekuak, afariak eta aurreikusitako. Tropelak laguntza taldea izanen du: bi gidari eta mikrofonoarekin lan egingen duenak. Aparte, martxa herrira ailegatzen denean jendeak harrera egiten den lekuan itxaron

dezake eta nahi duten guztiak parte har dezakete martxan. Gazte, adineko... Bizikleta duen guztiak parte har dezake. Politika izaten da, eta horixe nahi genuke, jendeak parte hartzea.

## Sakanatik ere pasako da, ezta?

Hilaren 20an Gasteiztik abiatu eta Altsasuraino etorriko gara. Arratsalde iritsiko gara. Hurrengo egunean Altsasu eta Iruñea arteko etapa egingen dugu. Irurtzunen bazkaltzera geldituko gara. Gurekin Sakanan bizikletan ibili nahi duenak aukera izanen du, ez da izena eman behar. Espontaneoki parte hartu nahi duten guztiak ongi etorriak izanen dira.

## Eta hasiera eta akaberetan zerbait berezia egin duzue?

Hori bulkatu nahi dugu. Herri bakoitzean bertako pentsiodunen batzordeek protagonismoa izan dezatela. Haiek autonomia osoa dute ailegatzeko garrenean, harre-er egiterakoan... Gainera, nahi izaten dugu herri bakoitzeko pentsiodunen batzordeak gizarte mugimenduekin (gazteak, feministak...) eta sindikatuekin harremanetan jartzea, nolabait, guztiok helburuak partekatzen ditugu eta horren alde antolatzea eta mobilizatzea. Markatu ditugun helburuen alde herritarrek aktibitatea litzateke.

## Herrietara sartuko zarete?

Kaleetatik pasatzen gara eta ekitalditxoak ere izaten dira. Ustedut Arbizun eta Lakuntzan badaudela harrera txikiak aurreikusita. Bakoitzak nahi duena prestatzen du. Guztiak oso politak eta hunkigarriak izaten dira. Platano batzuk ateratzen badizkigute eta jendearekin egoten bagara, gu gustura.

## Nolako bukaera izanen du?

Bizikleta martxa hilaren 25ean bukatuko da Irun eta Donostia arteko etaparekin. Bukatzeko, Donostian manifestazioa egingen dugu. Jendetsua eta ederra izan dadin nahi genuke, pentsiodunak eta Euskal Herriko gizarte mugimendu guztietakoak hantxe agertzea. Gizarte erakundeekin eta sindikatuekin dagoeneko harremanak izan ditugu Euskal Herri, lurralde eta herri mailetan. Urte bukaeran aurrekontuak etorriko dira, eta hor indar handia egin beharko da 2023ko aurrekontuetan kontuan izan dezaten gutxieneko pentsioa, eta, behingoz, osatu dezatela 1.080 eurokoa izan dadin. Pentsioen gaiak guztiak eragiten digu.

## DUELA 25 URTE...



## Tximistorratzarekin bueltaka

Iturmendiko tximistorratz bakarria elizako kanpandorre gainekoa zen. Baina ez zituen bere egitekoak ongi betetzen: inazturak erakartzen zituen, baina gero haiek ez zituen lurrera bideratzen. Horren jakitun bakarren batzuk hura kendu eta bi tximistorratz jartzeko proposamenaz galdera eginez paperak banatu zituzten etxeetan. Iturmendiar gehienek jarri eta ordaintzearen alde egin zuten, %20 bat ez jartzearen alde eta %8 diru publikoz jartzearen alde egin zuten.



Ikasleak gurasoez lagunduta Zelandi eskolara sartzen. ARTXIBOA

## Udalak ikastetxeendako dirulaguntza deialdia egin du

Lau lerro ditu dirulaguntzak eta interesatuek eskabideak irailaren 30era arte egin ditzakete

### ALTSASU

Herriko ikastetxeei zuzendutako udalaren dirulaguntza deialdiaren onuradunak ikastetxeak beraiek, irakaskuntza kooperatibak eta guraso elkarteak dira. Haien artean, guztira, 15.000 euro poltsa banatzeko dago. Altsasuko Udalak emanen duen laguntzaren bidez heldu den ikasturtean eginen diren jarduerak lagundu nahi ditu udalak. Ikastetxeendako dirulaguntza deialdiak lau lerro edo kontzeptu ditu: hezkuntza proiektu berritzaileendako; berrikuntzaren bidez irakaskuntzara bideratutako materiala hobetzeko; eskolaz kanpoko euskarazko jardueren gastuetarako eta, azkenik, euskarazko jarduerak, eremu akademikitik kanpo gauzatzen direnak, A, B eta D ereduko ikasleei zuzenduta daudenak.

Proiektu berritzaileak lagunduz, Altsasuko Udalak hezkuntza eskaintzaren eta zerbitzuen kalitatea, trukea, parte hartzea eta herritarrek baliabideak aprobetxatzea bultzatzeko programatzen diren hezkuntza ekimenak finantzatzeko ditu. Beti ere, egiteko modu berrietara egokituta badaude. Laguntza lerro horren bidez udalak 5.000 euro banatuko ditu.

Bigarren laguntza lerroaren helburua da irakaskuntzara bideratutako eskola materiala hobetzea, material hori berrituz eta horrela, irakasleen eta ikasleen errendimendua hobetuz. Altsasuko Udalak horretarako 7.000 euro bideratu ditu.

Diruz lagundu daitezkeen hirugarren kontzeptuak euskarazko eskolaz kanpoko jarduerak eragindako gastuei dagokiena da. Lerro horren bidez lagundutako eremu akademikoetakoren batean euskararen erabilera sustatzea berariaz egindako euskarazko jarduerak lagunduko dira diruz: ikaslearen etxearen eta ikastetxearen arteko autobus-ibilbideetan; ikastetxearen autobus inguruetan, sartzeko eta irteteko orduetan; aisialdirako guneetan; ikastetxeko korridore eta eskaileretan, sartzeko, irteteko eta klasez aldatzeko orduetan; jantokian (bazkaltzeko orduetan eta atsedeen-denboran) eta Euskararen Nazioarteko Egunean (abendua 3) egindako jarduerak, herritar guztiendako. Lerro horrek 2.000 euroko diru poltsa du. Azkenik, diruz lagundu daitezkeen laugarren kontzeptuaren bidez eremu akademikitik kanpoko euskarazko jarduerak diruz lagunduko ditu Altsasuko Udalak. Helburua da administrazioak eskola-eremuan euskara sustatzen laguntzea, jarduera ez-akademikoen bidez.

Altsasuko Udalak jakinarazi duenez, jasotako eskabideak aztertu eta horren arabera laguntza nori eman erabakiko du. Emandako dirulaguntzaren zenbatekoaren %60 erakunde eskudunak laguntza ematea erabakitzen denean jasoko du. Gainerako %40 dirulaguntza justifikatzeko eskaturiko dokumentuak aurkezten dituen jasoko du, hau da, likidazioa egiterakoan.

# Uholdeen kalteei buelta emateko 456.425 euro

Diru hori beharko du Altsasuko Udalak eta horretarako dirulaguntza eskatu du. 140.422,35 euro abeltzaintza azpiegiturak konpontzeko dira, 47.795,3 euro baso azpiegiturak konpontzeko eta 268.207,38 euro herriko azpiegiturak lehengoratzeko

### ALTSASU

Abenduaren 9an eta 10ean botatako euriak uholdeak sortu eta kalte ugari eragin zituen. Lurralde Politika Ministerioak hainbat erkidego, Nafarroa barne, Larrialdi Zibileko emergentziagatik larriki kaltetutako eremu izendatu zuen, eta dirulaguntza deialdia egin zuen euriak sortutako kalteak konpontzeko. Altsasuko Udalak haiek zerrendatu eta 456.425,04 euroko balioa duten lanak aurkeztu ditu deialdi horretara.

Altsasuko Udalak aurkeztu duen eskaera horren %58,76 (268.207,38 euro) herriko bost azpiegitura konpontzera bideratuko lirateke. Zehazki, ubeldeak gainezka egin zuen eta erosi-natutako dauden ibaiaren bi ertzeetan harri lubetak egin nahiko lituzke udalak lau tokitan: Zangituko bidean (119.852,67 euro), Errotatikiko euri uren gainezkabidean (24.911 euro), Ondarria industrialdean (18.803,02 euro) eta Beheko Benta auzoan (17.204,29 euro). Inbertsio horietaz aparte, azkenik, Isasia industrialdean 6.361,28 euroko balioa dutenak egin nahi lituzke udalak.

Altsasuko Udalak egin nahi lituzkeen lanen aurrekontuaren %30,76 (140.422,35 euro) abeltzaintza azpiegiturak konpontzeko lirateke. Bost bideren konponketaren zerrenda aurkeztu du udalak dirulaguntza deialdira. Batetik, Erreguarteko bidea konpondu nahi du udalak (49.113,98 euro). Bide hori konpontzeko kaskailua erabili beharrean asfalto zabaldu nahiko luke 2.032,8 metro karratutan. Beste lau bideetan sortutako kalteak ohi bezala konpondu nahi luke udalak: Dermauko bidea (23.630,92 euro), Larrunzako bidea (12.867,84 euro), Isasiako bidea (5.048,96 euro) eta Beikolarko bidea (4.256,33 euro).

Azkenik, abenduko euriteek baso azpiegiturretan eragindako



Altsasun uholdeak sekulako mailarik altuena hartu zuen. ARTXIBOA

## EGIN NAHI LIRATEKEEN LANIK HANDIENAK HARRI LUBETAK ERAIKITZEA LIRATEKE

kalteak konpontzera dirulaguntza eskaeraren %10,47 (47.795,3 euro) bideratuko luke Altsasuko Udalak. Bi bide konpondu nahi lituzke udalak, bietan kaskailua zabalduz. Torretxikiko bidea (16.902,58 euro) eta Izarteko bidea

(15.404,5 euro) dira konponketa premia dutenak. Aurrenekoa konpontzeko materialaren tamaina handiagoa erabiliko litzatekeela aurreratu du udalak.

Uholde haien ondorioz, Nafarroako Gobernuak ere neurriak hartu zituen eta ibarreko udalerri guztiak uholdeak kaltetutakoen zerrendan sartu zituen. Gobernuak jakinarazi zuenez, lurralde kontribuzioa, Ekonomia Jardueraren gaineko Zerga eta eraikuntzen gaineko zerga ordaintzeko salbuespenak izanen dira eskatzaileendako.

WWW.TXARTEL.NET

Garraio kostea doan 60etik gorakoetan. Prezio guztiak BEZ barne

Stock denbora errealean

Entrega epea 24 orduetan, 17:00ak baino lehen eginda

948 564 002 txartel@txartel.net



Iturmendiarrak sanmigeletan, plazan. ARTXIBOA

# Ikasturte berrirako eskaintza zabala prest

Ikasturte honetako esperientzia positiboaren ondoren, 2022-2023 ikasturterako haur, gazte eta helduendako makina bat ikastaro antolatu dira Iturmendin. Haietan izena emateko epea zabalik dago

## ITURMENDI

Despeditu berri den ikasturteko astegun guztietan haur eta helduendako ikastaro eskaintza zabala izan da Iturmendin. Jarduera horiek udaletxeak eta eskolak ziren eraikinak hartu dituzte. Horrek herriari bizia eman, eta kaleetan jendea egotea ekarri du. Guztiaren atzean Patrizia eta Lorena Aizpurua Unanue daude. Neguan haur txikiendako ezer ez zegoela eta urtaroa luze eginen zitzaie aurreikusuten zuten. Horri buelta emateko eskaintza prestatzen hasi eta izandako esperientzia eta emaitzarekin pozik, errepikatzea erabaki dute. Eta dagoeneko heldu den ikasturterako jardueren zerrenda prest dute, beti ere talde txikitik egiten direnak. Gainera, antolatutako ikastaro askotako begiraleak iturmendiarrak dira. Azaldu dutenez, interesa dutenek dagoeneko izena eman dezakete. Horretarako, edo informazioa eskatzeko, 615 704 540 telefonora hots egin behar

du. Iturmendiarrak aparte, baikaikuarrek eta urdindarrek ere eman dezakete izena. Eta, horregatik, bi herri horietan ere kartelak jarri dituzte.

## Haurrak

Txikienek dozena bat eskaintza izanen dituzte aukeran Iturmendin heldu den ikasturtean. Haien artean kirola, dantza, musika eta ikasketa arloetakoak daude. 3 eta 12 urte arteko ume eta haurrendako honako jarduerak izanen dira: ludoteka ingelesez, multikirola eta xakea, euskal dantzak, marrazketa, trikitixa, panderoa, txistua, dantza modernoa (hiri dantzen hainbat korrante ezagutzeko aukera), gorputz adierazpena (psikomo-

trizitatea, gorputz adierazpena, sormen dantza, erlaxazioa eta bestek bat egiten duten komunikazio eta ongi pasatzeko tailerra), psikomotrizitatea, pilatesa eta ingelesa.

## Gazte eta helduak

Haurrendako baino jarduera bat gutxiago programatu dira gazte eta helduendako, hamaika. Haien artean daude sasoiaren mantentzeak, kirola praktikatu, hizkuntzak ikasi edota musika eta dantzarekin lotutako ikastaroak. 16 urtetik gorako gazte eta helduendako 2022-2023ko ekintza jarduera honakoa izanen da: marrazketa, trikitixa, panderoa, psikomotrizitatea, txistua, dantza modernoa (hainbat musika estiloetako koreografiak ikasi eta modu dibertigarrian sasoiaren egoteko), gorputz adierazpena (biodantza, erlaxatze, psikomotrizitate eta bestelako teknikak mugimendu askea eta bat-batekoa berreskuratze), boxeoa, pilates, ingelesa eta frantsesa.

**ITURMENDIARRAK APARTE, BAKAIKUARRAK ETA URDINDARREK EMAN DEZAKETE IZENA**



Sakandarrak osasun publikoarne aldeko bilkuran. ARTXIBOA

## Konponbide duin eta iraunkor eske Altsasuko osasun etxerako

Arazoa "luze" jotzen ari dela eta "pazienteen pazientzia" agortzen ari dela adierazi du plataformak

### ALTSASU / OLATZAGUTIA / ZIORDIA

Ohikoa bihurtu da Altsasuko osasun etxearen sarreran zenbat mediku dauden esaten duen kartela irakurtzea. Atzo bi besterik ez zeuden. Sakanako Osasun Publikoaren Aldeko Plataformako kideak Nafarroako Gobernua kritikatu dute: "hedabideetan osasun sistema publikoaren ontasunak goraiatzeko kanpaina egin bitartean, Sakanan eta, zehazkiago, Altsasuko oinarritzko osasun-eremuan, prekaritate handiaren jarraitzen dugu, medikuen falta dela eta. Ondorioz, lehen mailako arreta oso txarra

ematen zaie herritarrei, eta Altsasuko osasun etxean ez ezik, beste osasun eremu batzuetan ere lan gaitzera handia sortzen da". Horren adibide hilaren 5ean Etxarriko osasun etxean gertatutakoa: "han zegoen mediku bakarra Altsasuko osasun eremuko larrialdiak betetzera bidali zuten, medikuarengan estresa sorturik eta bere pazientengana ezin iristearen sentimendu gaziarekin". Baldintza duinak eskatu dituzte osasun etxeetako langileendako, "eta, tratamendu berezia, beharrezkoa bada, eskualdearendako".

## Erorikoak, kontuan hartzeko alerta seinale bat

Altsasuko klinika psikogeriatrikoak erorikoei buruzko ikerketa egiten ari da eta topaketa antolatu zuten

### ALTSASU

Josefina Arregui klinikak eFrail Programaren II. Jardunaldi Praktikoa antolatu zuen Iruñean asteartean. Klinikako adituek adinekoen erorketen analisi, esku hartze eta prebentzioaren ikuspegietik landu zituzten. Topaketara lehen mailako arretako medikuak, osasun langileak eta adinduen egoitzetako ordezkariek joan ziren.

Hitzordua eFrail programa pilotuaren bigarren fasearen barruan kokatzen da. Programa hori duela gutxi hasi da klinikan,

eta hauskortasun sindromea detektatzea eta esku hartzea du helburu, dimentsio anitzeko prebentzio faktore gisa adineko paziente helduetan, dementsia baloratuta izan edo ez. Bigarren fasean benetako pazienteekin azterlan bat egiten ari dira, hauskortasun eta dementsia maila desberdinekin diagnostikatutako pertsonen errehabilitazioa hobetzen lagunduko duen metodologia propio bat baliozkotzeko. Lan hori egiten laguntzen ari diren egoitzen artean dago Aita Barandiaran adinduen egoitza.

## FESTAK

**IRURTZUN****TRINITATEA****EKAINAK 10 Ostirala**

18:30-21:30 Herriko Kings Systemen kontzertua eta arratsalde pasa, Iratxo elkartearen.

**EKAINAK 11 Larunbata**

09:30 IV. Erlojupeko igoera Ergako Trinitatera, Aska plazatik.

Guam taldea.

12:00 Irurtzun Kantuz, plazatik.

Aizpea euskara taldea.

14:30 Herri bazkaria, plazan.

17:00 Mutil Gazteak txarangarekin kalejira, plazatik.

17:30 XXX. Irurtzango Pilota txapelketako finalak Irurtzun A vs Irurtzun B, Bi Aizpe pilotalekuan.

• Emakumeen partida: K. Madariaga

- L. Oscoz / A. Ibarrola - A. Arrastia

• Lau eta erdian: Ongay / De la Fuente

• Binaka: Retegi II - Bergera /

Olaetxea - Lazkoz

20:00-24:00 Disko musika, plazan.

21:00 Bokata jana, Larrazpin.

22:30 Kontzertuak, Larrazpin.

**EKAINAK 12 Igandea**

11:00 Erromeria Ergako Trinitatera.

17:00-20:00 Jolasak Jokairen

eskutik, Foru plazan.

**BAKAIKU ETA ITURMENDI****TRINITATEA****EKAINAK 12 Igandea**

Eguerdian Auzatea akordeolariarekin, Trinitate ermitan.

14:30 Kuadrillen bazkariak,

Trinitate ermitan.

Bazkalostean Musika, ermitako plazan.

18:00 Jaitziera eta auzatea,

Dantzalarren.

20:00-23:00 DJ Jotatxo, Bakaikuko

plazan.

**ETXARRI ARANATZ****SAN KIRIKO****EKAINAK 13 Astelehena**

18:45 Kalejira udaletxetik Andra

Marira dantzareiz lagundurik.

19:00 Andra Marin aureskua eta

gero bendube.

20:30 Kintoen dantzakia eta

kalejiran herrira.

20:30-23:00 eta 00:00-02:00 Orots

taldea.

**SAN ADRIAN****EKAINAK 16 Osteguna**

09:00 Udalbatzaren kalejira,

udaletxetik San Adrinera.

11:00 Fritada, San Adrinen.

12:00 Elizkizuna.

13:00 Dantza taldearen emanaldia,

zelaigunean.

15:00 Bazkaria.

17:00 Txistularien erronda.

18:00 Kintoen dantzaldia,

zelaigunean.

19:00 Erromeria herrirantz abiatzea.

20:00-21:00 eta 22:00-02:00

Trikiteens taldea.



ARTXIBOA

**ETXARRI ARANATZ** Ekainak 16, osteguna, San Adrian eguna.

Etxarri Aranazko Udalak basoan sua neurrian egin eta jatekoak prestatzeko suak partekatzeko gonbidapena egin du.

**Elkartean elkartzeko aukera**

Joan den larunbatean eskolaren eguna izan zen, eta larunbat honetan Aralar Mendi elkarteak antolatutako bazkaria; sanjoanen festen aurretik bada mugimendua Uharte Arakilen. Pandemiaren aurretik ohikoa zen maiatzean Uharte Arakileren Galiziatik pulpeiroa etortzea. Aurten etorri ez denez, haren ordez Aralar Mendi elkarteko zuzendaritzak pen-

tsatu du bazkideendako eta ez direnendako bazkaria antolatzea. Goizetik arkumearen haragia gingirriñean erretzen ariko dira. Bazkariko menua entsalada mistoak eta errusiarrak, postreak, kafeaketa kopak osatuko dute.

Gaur egun Aralar Mendi elkarteak 300 bazkide inguru ditu. Azken bi urtetan gazte te herri-tar ugari kide du eta, batez ere, gazteak "egurra ematen ari zaizkio" elkarteari. 2020ko otsai-lean elkarteko sukaldia guztiz

berritu eta mustu zuten, baina pandemiak ez zien behar bezala erabiltzeko aukerarik eman eta orain hasi dira. Uhartearrak elkarte erabiltzera badoaz. Bestalde, gastronomia eraikinaz aparte gehiago ere bada Aralar Mendi: Artzain Eguna antolatzen du, areto futboleko atala du eta bera da iraileko Km Bertikal mendi lasterketaz arduratzen dena ere. Garai batean pilota atala ere izan zuen elkarte ubertiarrek.

▼ UZTAILAK 29

Udako  
guaix  
berezia

Zure negozioa hemen

KONTAKTUA

📞 948 564 275 | 661 52 32 45

📧 publi@guaix.eus



## AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / [kultura@guaixe.eus](mailto:kultura@guaixe.eus)

## OSTIRALA 10

**ALTSASU Futsal eta 3x3 saskibaloitxapelketak.**

Korazonistak ikastetxeak antolatuta.  
16:00etatik aurrera, Korazonistak ikastetxean.

**ITURMENDI Kafe konpondu.**

17:30etik 19:30era, plazan  
(eguraldi txarrarekin frontoian)

**EGIARRETA Ikasturte amaierako kontzertua**

Irurtzungo musika eskolako ikasleak.  
18:00etan, *Itsasperrin*

**ALTSASU Izaskun Etxeberria Zufiurre idazlearen Esaten ez den guztian liburuaren aurkezpen emanaldia.**

18:30ean, *lortia kultur gunean.*

**ALTSASU Agur 2021-2022 ikasturteari dantza emanaldia.**

Altsasuko Musika eta Dantza Eskolako dantza ikasle gazte eta helduak.  
19:00etan, *lortia kultur gunean.*

**LAKUNTZA Haizkan taldearen kontzertua.**

Pintxo pote musikatua.  
20:00etan, *Sorgiñak tabernan.*

**ARBIZU Arbizuko Balda Futsal 24 Orduak.**

Arbizuko Kirol Taldeak antolatuta.  
20:00etatik hurrengo eguneko 20:00ak arte, *kiroldegian.*

## LARUNBATA 11

**ARBIZU Andra Mari ikastolako festa.**

10:00etan, arte proiektua  
11:00etan, herri kirolak  
12:30etan, buruhandiak eta triki poteoa Xapiru trikiti eskolarekin  
14:30etik aurrera, bazkariak  
16:00etan, puzgarriak  
16:30ean, omenaldiak  
17:00etan, dantza emanaldia  
18:30ean, Faktoria DJ  
21:00etan, Aatea  
21:30ean, Zezensuzkoa. Plazan.

**LAKUNTZA Lakuntzako Herri Eskolaren festa.**

10:45ean, festa hasiera: Guraso Elkartearen logoaren aurkezpena  
11:00etan, herri kirolak  
11:30ean, entzierro txikia  
11:00etatik aurrera, tailerrak  
13:15etik 14:15era kalejira eta eskolako abestiaren koreografia, plazan  
14:30ean, bazkaria  
16:00etan, musika eta puzgarriak  
21:00etan, zezensuzkoa. Eskolan.

**LAKUNTZA Futbola: Altsasu vs. Osasuna A.**

Gazteen Maila Nazionalako Kopako finalerdia.  
11:00etan, *Zelai Berrin.*

**ALTSASU Euskal Herriko emonden tai sen IV topaketak. Txiki eta helduendako Yoseikan Budo armen borrokak.**

11:00etatik aurrera, *Zelandi kiroldegian.*

**ALTSASU Udal azpiegiturak sozializatu! eguna.**

AGAK eta GSK antolatuta.  
11:30ean, asanblada irekia  
12:30ean, kalejira musikatua  
14:30ean, bazkaria  
16:30ean, mus txapelketa, Foru plazan  
22:30ean, Xuar taldearen kontzertua, gaztetxean.

**OLAZTI Arte Bizi eguna: Arte erakusketa kolektiboa.**

12:00etatik 14:30era eta 16:30etik 20:00etara, Arte Artisautza merkatua.  
13:00etan, musika eskolaren ikuskizuna.  
18:00etan, Action painting: Helena Santano eta DJ Morti.  
*Memoriaren parkea, Clinkerren atzekoaldean.*

**ETXARRI ARANATZ Haurren futbol txapelketa.**

15:30ean, CD Etxarri Aranatz KE - CA Osasuna.  
16:30ean, CD Oberena - Beasain KE.  
17:30ean, 3. eta 4. postua.  
18:30ean, Finala.  
*San Donato futbol zelaian.*

**BAKAIKU XVI. Aitzkozar Herri Lasterketa.**

Antolatzaileak: Aitzkozar eta Bakarrekoko Etxeak elkarteak  
Dantzaleku Sakanaren klubaren laguntzarekin.  
Aurrebenjaminak, benjaminak, alebinak, haurrak eta kadeteak,  
17:00etan; jubenilak eta nagusiak,  
18:30ean, Bakarrekokoetxea elkartearen paretik.

**ALTSASU Peter Pan dantza jaialdia.**

Irantzu Gonzalez Dantza Eskolaren talde txikiak  
17:00etan eta 19:00etan, *lortia kultur gunean.*

## IGANDEA 12

**ALTSASU Altsasuko 25. BTT zeharkaldia.**

Barranka Txirindularitza Taldeak antolatuta.  
09:00etan, Foru plazan.

**LAKUNTZA Lakuntza-Aralar****IRURTZUN Begirada ezberdin bat argazki erakusketa.**

Ekainaren 4etik 26ra.  
Astelehenetik ostiralera  
08:00etatik 22:00etara,  
larunbat eta igandetan  
09:00etatik 22:00etara.  
*Pikuxarren.*

**mendi lasterketa.**

Zabalartek antolatuta.  
09:30ean, plazan.

**ETXARRI ARANATZ Udaberriko pala finala.**

10:00etan, *pilotalekuan.*

**ETXARRI ARANATZ Artista etxarriarrek plazan erakusketa**

Margo taldea, Emhari joskintza taldea, Silbia Sesmaren Pitxikeiyek, Estimulazio kognitibo taldea, Idoia Agirre, Tomás Mauleon, Lurdes Goldarazena eta Silvestre Goikoetxean.  
12:00etatik 14:00etara, plazan.

**ETXARRI ARANATZ Ikasturte amaierako kontzertua.**

Udal musika eskolako ikasleak.  
12:30ean, plazan.

**ALTSASU Euskal preso eta iheslariak etxera elkarretaratzea.**

20:00etan, plazan.

## ASTELEHENA 13

**ALTSASU Pentsio duinen aldeko elkarretaratzea.**

12:00etan, Foru plazan.

**LAKUNTZA Kafe konpondu.**

17:30etik 20:30era, plazan  
(eguraldi txarrarekin kultur etxean)

## ASTEAZKENA 15

**ETXARRI Kafe konpondu.**

17:30etik 20:30era, plazan

**ALTSASU Koldo Arnanz Zufiurren Marrazketa eta margo tailerraren erakusketa.**

Ekainaren 15era arte. Astelehenetik ostiralera 18:00etatik 20:00etara, larunbatetan ikuskizuna baino ordu bat lehenago eta igandetan 17:30etik 19:30era.

## ZINEMA

## ALTSASU

IORTIA KULTUR GUNEKO ARETO NAGUSIAN

*El comensal* gaurkotasunezko filmaren emanaldia  
Igandea 12: 19:30

(eguraldi txarrarekin frontoian).

**ALTSASU Gazte Euskaltzaleen Sarearen aurkezpena.**

19:00etan, *Gure Etxea eraikinaren 1. solairuan.*

## OSTEGUNA 16

**ALTSASU Elektrokela Elektrotzarangaren kontzertua.**

Pintxo pote musikatua.  
20:00etan, *Idergi tabernako terrazan.*

## OSTIRALA 17

**BAKAIKU Kafe konpondu.**

17:30etik 19:30era, plazan  
(eguraldi txarrarekin udaletxean).

**OLAZTI Festetako kartela aukeratzeko bozketa**

18:00etatik 20:00etara, kultur etxean

**OLAZTI La Topadora taldearen kontzertua.**

20:00etan, *Barandi tabernan.*

**beleixe** 107.3 FM  
ZUZENEAN 10:00-12:00  
ERREPIKAPENAK 14:00ETAN  
ONLINE ENTZUTEKO  
GUAIXE.EUS

## IRAGARKI SAILKATUAK

## LANA/NEGOZIOAK

## LAN ESKAERA

**48 urteko emakumea, adineko jendea zaintzeko edo ostalaritza garbiketara lan egiteko prest:** Telefono zenbakia 653 998 035.

## LAN ESKAINTZA

**Nafarroako Bertsozale Elkarte bertsolaritza irakasle bila:** Sakanako eta Larraungo hainbat ikastetxe eta Bertso Eskoletan aritzeko. Lanaldi erdia eskaintzen da, ordugegi moldagarria. Ekainaren 13ra bitarte bidali daitezke curriculumak eta motibazio gutunak, [nafarroa@bertsozale.eus](mailto:nafarroa@bertsozale.eus) helbidera. Lan deialdiaren xehetasunak [www.bertsozale.eus](http://www.bertsozale.eus) web orrian ikusgai daude.

**Ziordiko Udalak igerilekuetarako sorosle bila:** Udalak Udako igerileku sasoiarako sorosleak kontratatatu nahi ditu. Interesa dutenek Nafarroako Enplegu Zerbitzuak Altsasun duen bulegoan izena eman beharko dute.

**Lakuntzako Udako jolasgunerako begiraleak behar dira:** Lakuntzako Udalak jakinarazi du jolasgunearen kudeaketa antolatuko duten begiraleak kontratatuko dituela. Horretan interesa dutenek curriculumak eta jolasgunearen antolaketa eta ekintzen proposamenak aurkeztu behar dituzte Udaletxean, ekainaren 14a baino lehen. Kontratuak ekainaren 23tik irailaren 29ra iraungo du.

**Jaibusean arduradun lana egiteko jendea behar da:** Interesa dutenek deitu hauetako telefono batetara: Irurtzunen 605 466 805, Etxarrin 679 534 481 eta Altsasun 616 841 995. Sakanako Oinarriko Gizarte Zerbitzuak.

## IKASTAROA

**Iturmendiko 2022/2023 ikasturteko ikastaroetan izen ematea zabalik:** 3 eta 12 urte bitarteko haurrentzat ludoteka ingelesez, multikirola eta xakea, euskal dantzak, marrazketa, trikitixa, panderoa, txistua, dantza moderna, gorputz adierazpena, psikomotritzitatea, pilatesa eta ingeleza ikastaroetan eman daitezke izena. 16 urtetik gorako gazte eta helduentzat

marrazketa, trikitixa, panderoa, psikomotritzitatea, txistua, dantza moderna, gorputz adierazpena, boxeo, pilates, ingeleza eta frantsesa ikastaroetan. Izen emateko edo informazio gehiago nahi izanez gero deitu 615 704 540 telefonora. Iturmendiarek aparte, bakaikuarrek eta urdiaindarrek ere eman dezakete izena.

**Emakumeendako auto-defentsa ikastaroak:** Zer dira eraso sexistak? Nola pairatzen ditugu? Nola identifikatu erasoak? Bi saio izango dituzte Altsasun ekainaren 18an, 10:00etatik 18:00etara Gure ebexa-ko eraikinean (izen ematea ekainaren 15ean amaitzen da). Izen emateak [berdintasuna@sakana-mank.eus](mailto:berdintasuna@sakana-mank.eus) edo [berdintasuna@altsasu.net](mailto:berdintasuna@altsasu.net) emailletara idatzi edo 660 384 328 / 628 328 593 telefonoetara deitu.

**Altsasuko Kirol Eskoletan izen emateko epea:** ekainaren 7tik ekainaren 21era arte 948 012 012 tfnora deituz. Eskaintza Udaletxeak banatutako eskuorrian. Plaza mugatuak direnez Altsasun erroldatutakoek lehentasuna iznago dute, bigarren irizpidea inskripzioaren hurrenkeraren arabera. Urriaren 1etik maiatzaren 31 arte irauten dute ikastaroak, ordainketa iraillean egiten da. Informazioa, erreklamazioak eta zerrendak Gure Ebexean edo Udaletxean.

## OHARRAK

**Odol emateak Irurtzunen:** Ekainaren 14an, 16:45tik 20:30ra, Osasun ebexean.

**Etxarri Aranatzeko Udako Euskas aisialdi eskaintzan izen ematea:** Garagarrilaren 27tik garilaren 29ra, aste guneetan, 9:00etatik 13:00etarako ordutegiarekin. Aste batez izena eman nahi duenak 45 euro ordaindu behar ditu, bost asteetarako izen emateak 200 euro. Izen emateko deitu 659 494 908 telefonora edo idatzi [udanebkarri@euskas@gmail.com](mailto:udanebkarri@euskas@gmail.com) helbidera.

**Lakuntzako musika eskolan izena emateko epea zabalik:** Ikasketa hauetan eman daitezke izena garagarrilaren 21a baino lehen: musika eta

mugimendua, musika hizkuntza, akordeoia, trikitixa, bateria, gitara, pianoa, tronpetea, txistua, tuba, panderoa, gaita, fanfarrea, bonbardino eta tronboia.

**Lakuntza Udako Euskaraz kanpainan izen ematea zabalik:** Hiru urtetik aurrerako umeei zuzenduta dago, ekainaren 27tik uztailaren 29ra burutuko da. Saioak astegunetan 10:00etatik 13:00etara izanen dira Kultur etxean. Lakuntzan erroldatuta seme-alaba bakarra bada 70 euro ordainduko dira, bi seme-alaba badira 35 euro bakoitzak, eta hiru seme-alaben kasuan 10 euro bakoitzak. Erroldatuta ez dauden haurrek 100 euro ordainduko dituzte. Izen ematea [www.lakuntza.eus](http://www.lakuntza.eus) web orriaren bitartez egin daitezke ekainaren 14a baino lehen.

**Trafiko sentsibilizazio kanpaina Altsasuko Zelandi eskola inguruan:** Nafarroako Gobernuaren bizikletaren erabilera zuzendutako kanpainaren barruan ekainaren 20ra arte In-txaurren kalea 8:30etik 8:50era itxita egongo da. Eskolara autoarekin joan nahi dutenek Zelandi kiroldegiko aparkalekuan utzi beharko dute kotxea. 3-6 urteko haurrek erabiltzen duten atearen parean aparkatzea debekatua egongo da. Gurasoak eta ikasleak seguru joan ahal izateko sentsibilizazio kanpaina.

**Aralarko San Migel Santutegiko beharrak ikusita:** erabiltzen ez den eremu bat egokitu nahi da santutegia bisitatzen dutenentzat, eta bertan harrera-lekua, kontrolgunea, denda eta komunak, baita interpretazio-zentro berria eta kofradiaren egoitza ere. Zaharbertzeko proiektuan lagundu nahi duenak ES11 3008 0045 9840 7184 5517 kontu korrontean egin dezake ekarpena. Mezenazgo Legean jasotako proiektua denez, dirua ematen dutenei errenta aitortpena egitean zati bat bueltatuko diote.

[iragarki@guaixe.eus](mailto:iragarki@guaixe.eus)

[www.iragarkilaburra.eus](http://www.iragarkilaburra.eus)

## ESKELA



## Maria Eugenia Galarza Lazkoz

"Egin bideak baztertuz, beste bat aukeratzekoan une batez gelditu banendi... eternitatea litzateke une hori"

### Ikerren lagunak

Etxarri Aranatz, 2022ko ekainaren 2an

## JAIOTZAK

- **Jare Santesteban Garcia**, ekainaren 2an Irurtzunen


## HERIOTZAK

- **Maria Eugenia Galarza Lazkoz**, ekainaren 2an Etxarri Aranatz
- **Aurelio Caro Talavera**, ekainaren 4an Etxarri Aranatz


INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

## EGURALDIA ASTEBURUAN


## Ostirala, 1




## Larunbata, 2



## Igandea, 3



## Astelehena, 4



Jarri zure iragarki laburra!

948 56 42 75

[iragarki@guaixe.eus](mailto:iragarki@guaixe.eus)

[www.guaixe.eus/iragarkiak](http://www.guaixe.eus/iragarkiak)



## OROIGARRIA



## Juan Luis Mendia Elorza

XX. urteurrena  
(Ekainaren 8an)

Zein luzea den gogoia ta zein motza aukera.  
Beti gure artean egongo zara

### Zure familia

Altsasu

## ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75

edo [eskelak@guaixe.eus](mailto:eskelak@guaixe.eus)

► Eskelen tarifak: 50,82 € / 96,80€ / 130,68 €  
prezio hauek BEZa barne dute.

► Bazkideek %10eko deskontua dute.

► Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00k baino lehen.



IZARRA

HEMEN, ZURE ONDOAN  
AGUI, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk  
zeinetan norbait  
ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

ALTSASU

Santa Cruz, 6

ETXARRI ARANATZ

Nagusia, 2

948 05 90 90 · [www.izarratanatorio.com](http://www.izarratanatorio.com)

**IRACHE**  
tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

☎ 948 19 70 70

📧 @Grupolrache

📱 Grupolrache

🌐 [www.tanatoriosirache.es](http://www.tanatoriosirache.es)

# Nork jantziko ditu etxeko txapelak?

**PILOTA** Irurtzun klubeko bi taldek jokatu dute XXX. Irurtzun Pilota Txapelketako finala larunbatean, 17:30ean, Bi Aizpen. De la Fuente / Ongay eta Olaetxea-Lazkoz / Retegi Bi-Bergera, "final oso estua" aurreikusten du Miguel Beraza presidenteak

**Maidar Betelu Ganboa** IRURTZUN Irurtzun klubeko presidente Miguel Beraza Loidik ezingo luke nahita ere, hobeto prestatu. Larunbatean jokatu da XXX. Irurtzun Pilota Txapelketako finala, eta Irurtzun klubeko bi taldek lortu dute sailkatzea. Meritu handia du horrek, txapelketa hau afizionatuen mailako ezagunenetako bat baita. "Pozik egotekoa da, bai" aitortu du.

Aurten txapelketaren formatoa aldatu dute, eta taldeka jokatu da. Horrek makina bat burukomin kentzu dizkio Berazari. "Geroz eta zailagoa da binakako txapelketa bat antolatzea. Azken orduan sarritan gertatu izan da pilotari batek deitzea esanez ezingo duela jokatu, lesionatuta dagoelako, edo baja egingo duela, atzelari gutxi daude... Baina txapelketan klubak ematen badu izena, kluba da bere pilotarien bajak ordezkatu dituen. Alde horretatik, lasaitasun handia izan dut" azaldu du. 15 klubetako taldeak lehiatu dira, Nafarroakoak, Gipuzkoakoak eta Errioxakoak.

## Finalerdi sinestezinak

Irurtzunek hiru talde aurkeztu zituen eta hirurak finalerdietara sailkatu ziren, Burlatako Zugarraldekin batera. Aurreko ostegunean Zugarralde eta



Olaetxea-Lazkoz eta Murgiondo-Apezetxea finalerdian, Berazarekin. UTZITAKOA

Irurtzun A-k jokatu dute finalerdian, lau eta erdiko partidaren Zugarraldeko Anso 22 eta 4 irabazi zion Irurtzunge Ongayri, "beraz, binakako partidaren Elizalde eta Agirrek bost tanto egitearekin Zugarralde sailkatzen zen finalera. Baina hara non, Retegi Bik eta Bergerak 4 eta 22 irabazi zuten, eta Irurtzun sailkatu". Ikusgarria. Lehen finalerdia "bihotzekoa emateko modukoa" izan bazen, bigarrenak bide beretik jarraitu zuen. Irurtzun B eta Irurtzun D lehiatu ziren. Lau eta erdian, Armendariz be-

teranoak Nazabal izan zuen aurkari. Nazabalek arazoa izan zuen eskuetan eta gaizki ibili zen. 22 eta 14 galdu zuen. Binakako partidaren Murgiondo eta Apezetxeak nahikoa zuten 15 tanto egitearekin, baina Olaetxeak eta Lazkozek 22 eta 14 irabazi zieten, eta finalera sailkatu ziren. Osteguneko finalerdia latza izan bazen, ostiralekoa izugarria" dio presidenteak, irribarrez.

## Faboritorik gabe

Finaleko jaialdia Madariaga-Oskoz eta Ibarrola-Arrastia ema-

kumeen arteko partidarekin hasiko da. Lau eta erdian, Aingeru De la Fuentek finalerdietan lesionatu zen Urtzi Nazabalen tokia hartuko du, eta Ongay izango du aurkari. "Nazabalena pena handia da, baina ezingo da aritu". Binaka, Olaetxeak eta Lazkozek Retegi Biren eta Bergeraren kontra jokatu dute. Final "oso paretsua, berdindua" aurreikusten du presidenteak. "Hoberenak irabazi dezala, baina alde batetik gazteek beterranoen aurrean pauso bat aurrera ematea gustatuko litzaidake. Beteranoak estutu ditzatela. Egia esan, ez dut faborito argirik ikusten. Binakako partida polita izango da. Lazkozek, finalerdietan, bigarren mailako profesional askok baino gehiago jokatu zuen, sekulako partida egin zuen, dominatzen, jotzen, hiru errebotekin zituen... ikusgarria. Horrela jokatu zuen, beteranoak ederki estutu ditzute" nabarmendu du.

Joan zen urtean Lasok eta Minak irabazi zuten Irurtzunge Txapelketa, Antsori eta Gili 22 eta 9 irabazita. "Laso afizionatuetan zebilen eta hasieratik diferentzia ezarri zuen. Beste publiko bat erakarri zuen eta sekulako txapelketa egin zuen, koska bat gorago zegoela argi erakutsiz. Aurtengo txapelketa aldiz, zeharo ezberdina izango da, final paretsua aurreikusten baita" dio Berazak.

Joan zen urteko beste aldaketa bat da Aaron Arbizu pilotariak taldea utzi duela, atzelari etxarriarra Asperekin profesional egin delako. "Atzelaria galdu dugu, baina pozik gaude Aspen dagoelako. Ea urte luzerako den eta ongi doakion" onena opa dio. Profesionalak ateratzen saiatzen jarraituko dute Irurtzunen, "boladak izaten direlako".

## "Pilota krisian dago Sakanan"



**MIGUEL BERAZA**  
LOIDI IRURTZUN  
PILOTA KLUBA

### Atzelari geroz eta gutxiago dago. Zergatik?

Atzean jokatzea oso gogorra delako. Atzelariak lan zikinagoa egin behar du, gogorragoa. Aldiz, gehienetan txaloak aurrelariendako dira. Atzelari batek baldintza bereziak izan behar ditu, eta berehala ikusten zaizkio dohainak: fisikoa, postura, jarrera, gorputza... Zailagoa da atzelariak ateratzea.

### Irurtzun klubean zenbat pilotari trebatzen dira?

Guztira 60 pilotari inguru. **Harrobi ona dator?** Ez horrenbestekoa. Sakanako pilota harrobia krisian dago, gainontzeko tokietan bezala. Haurrek ez dute pilota lehen aukera gisa hautatzen, haur gutxiago dago, kirol aukera anitza da... eta pilota kirol sakrifikuagoa da, indibidualagoa delako. Erronka zaila dugu, gutxiagotasun baldintzatan ari baikara lehiatzen.

## "FINALEAN JENDE ASKO BILDUKO DA. GIRO ONA DAGO, FESTAK BAITIRA" MIGUEL BERAZA

## ARETO FOTBOLA Arbizuko Balda Futsal 24 Orduetan 16 talde

Arbizu Kirol Taldeak Arbizuko Balda Futsal 24 Orduak torneoa antolatu du, ostiralean 20:00etan hasi eta larunbatean 20:00etan bukatuko dena, "kirol honetaz disfrutatzeke, herria girotzeko eta gure klubari bultzada bat emateko". 16 talde lehiatuko dira, eta lehenengo laurak saria lortuko dute, dirua eta bertako komertzioei esker prestatutako loteak.

## Zalduaren bigarren kopa

**FOTBOLA** Elomendiko Futbol Txapelketan lehiatzen den Arakilgo Zalduak denboraldiko bigarren kopa lortu du. Martxoan Elomendiko 50. Urteurreneko Trofeoa irabazi zuen Unzitiren kontra (3 eta 2), eta larunbatean Elomendiko Kopako finala irabazi zion atzera ere Unzitiri (3 eta 0). Ligako txapeldunordeek denboraldi bikaina egin dute.



UTZITAKOA



# Ziordiko lasterketa, elkartasunean txapeldun

**ATLETISMOA** Ziordiko Running Taldeak antolatutako lasterketa solidarioak 290 partaide izan zituen, 1.000 kilo inguru elikagai jaso ziren Paris 365 jantoki sozialerako eta 5.940 euro gaixotasun larria duen Markel Carmonarendako

**Maidar Betelu Ganboa** ZIORDIA Larunbatean jokatu zen Ziordiko Herri Lasterketa Solidarioa, eta probak izan zuen erantzunarekin kontentua dago Ziordiko Running Taldeko Jose Ramon Ramirez. "Kontuan hartuta lasterketa pila bat daudenez ia lasterketa guztietan parte hartzeak orohar behera egin duela, pozik gaude Ziordiko parte hartzearekin" azaldu du. Helduen lasterketan eta martxan 180 partaide izan ziren eta haurren lasterketan 110 inguru, beraz, 290 korrikalari guztira. "Eguraldiagatik beldurrez geunden, Araba aldean kazkabarra ari zuelako, baina eguraldiak eutsi zion, eta hori ere alde izan genuen" gaineratu du.



Bukaeran partaideetako batzuk talde argazkia egin zuten Markel Carmonarekin.

**Diaz eta Beunza azkarrenak** Helduen lasterketako irabazlea (6,8 km) Alberto Diaz (23:29) izan zen, Mikel Acarretaren (24:20) eta Jorge Alonsoren (24:55) aurretik. Raul Audikana olaztiarra seigarren sartu zen (26:45). Emakumezkoetan Izaskun Beunza olaztiarra gailendu zitzaion Lucia Garateri (28:04), eta Nagore Aramendi izan zen hirugarren (29:17). Baina Ziordiko lasterketa solidarioan garrantzitsuenak beste zenbaki batzuk dira, ekimen solidarioetarako jasotzen direnak, hain zuzen ere.

Izena ematearen truke elikagaiak eman behar zituzten korrikalariak, 4 kilo helduek eta 2 kilo haurrek. Guztira 800-1.000 kilo elikagai jaso ziren, Paris 365 jantoki sozialera bideratu zirenak. "Egunean bertan etorri ziren elikagaiak jasotzera, eta oso eskertuta zeuden" kontatu du Ramirezek. Bestalde, zozketetarako saldutako txartelekin jasotako 5.940 euroak GNA01 gaixotasun ultra arraroa duen Markel Carmona haur urnietarraren aldeko elkartera bideratu ziren. "Urtero Madrilen egonaldia egin behar

dute gaixotasunagatik, eta, guxtienez, egonaldi horretarako adina lortu dugu" gaineratu du Ramirezek, Ziordiko lasterketan euren aletxoak jartzen duten komertzio, enpresa eta bestelakoekin guztiz eskertuta. "Urte zailak dira, baina euren alea jarri dute eta eskertzea, ez dugu besterik. Guztira 61 sari zozketatu genituen" dio. KMSxELA Fundazioak ere kilometroak zenbatu eta gizarteratu zituen. Ekitaldia auzate ederrarekin eta Katxarrakosen kontzertuarekin despeditu zen. Datorren urtean, gehiago.

## Lasterketaz lepo




**AITZKOZAR HERRI LASTERKETA BAKAIKUN**

Aitzkozar krosak XVI. edizioa du eta larunbatean jokatu da, Bakaikun. 17:00etan kategoria txikikoen lasterketa izanen da eta 18:30ean helduen proba (8,1 km). Izena ematea egunean bertan egin daiteke. June Kintanari egin beharreko omenaldia atzeratu dute, atleta kanpoan dagoelako.




**ERGAKO TRINITATERA IGOERA**

Lau edizio beteko ditu baina jada klasikoa bilakatu da La Guan taldeak antolatutako Ergako Trinitatera Erlojupeko igoera. 9:30ean abiatuko da, Aska plazatik. Partaideek 3 km eta 500 m desnibel positiboa dute aurretik. Azken edizioan Ion Urrea (23:28) eta Maria Loizu (28:19) gailendu ziren.



**LAKUNTZA-ARALAR MENDI LASTERKETA, ALDAKETEKIN**

Igandean, 9:30ean abiatuko da Lakuntza-Aralar Mendi Lasterketa, Zabalartek antolatuta. Aurten ibilbide laburra egingo da soilik (13,3 km). 140 korrikalariatik gora daude izena emanda. 9:45ean mendi martxa abiatuko da, ibilbide bera osatzeko. ANFAS elkarrearen lana gizarteratuko da lasterketan.



**87 BIKOTE ANDRA MARIKO BINAKAKO LASTERKETAN**

Erantzun ederra izan zuen Andra Mari ikastolak Etxarri Aranatzen antolatutako IV. Binakako Lasterketak. Txikienek, zortzi, moto lasterketa egin zuten, eta nagusienek, korrika lasterketa. 87 bikote animatu ziren guztira, giro ederrean. Bukaeran zozketak izan ziren.

## Kapitainak ez du ontzia utziko

**ARETO FUTBOLA** Osasuna Magna Xotak Lehen Mailari eutsi dio. Nahiz eta beste eskaintzak izan, Imanol Arregi irurtzundarrak etxean jarraituko du. "Kluba dagoen egoeran egonda, ezingo nuke utzi. Ni naizena naiz, eta hemen jarraitzeko betebeharrak morala dut, joan zen denboraldian egin nuen bezala. Datorren urtean, ikusiko dugu" azaldu du teknikariak.



XOTA

## Dulantzin txapeldunorde

**ARETO FUTBOLA** Euskal Herri osoko 32 taldek parte hartu zuten parte Dulantziko Kimuen Mailako Udako Futbol Torneoan, tartean Altsasu A eta Altsasu B taldeek. Altsasu A-k aurrera egin eta kopako finalerako sailkatu zen. Partida oso borrokatuan, azkenean Altsasuk 1 eta 0 galdu zuen Donostiako Antiguokoren kontra, eta txapeldunordea izan zen.



UTZITAKOA

**Maidar Betelu Ganboa** ALTSASU

Dantzalekun larunbatean ospatutako I. Sakanako Atletismo Egunarekin 2021/2022 denboraldia despeditu du Dantzaleku Sakana atletismo eskolak, eta zapo oso onarekin. Dantzaleku Sakana atletismo klubeko kideekin batera Olinpiar Jokoetan bitan aritu den Iñigo Monreal atletak, Espainiako eta Hondurasko selekzioetako kide izandako Iñigo Perez abiadura lasterkariak eta Nerea Bermejo Espainiako txapelkunak neska-mutilei primerako master classa eskaini zieten, Fermin Azkargorta Galarza entrenatzailearen esanetan, "giro ederrean".

**Balorazioen garaia da. Nolako izan da Dantzaleku Sakana atletismo eskolaren denboraldia?**

Guztira 66 ikasle inguru izan ditugu ikasturtean, Sakanako herri askotarikoak, eta hori kopuru ederra da. Egia esan, ikasturteak emandakoarekin oso pozik gaude.

**Urte batzuk atzera eginda askoz ere ikasle gutxiago zeudela kontuan hartuta, Dantzaleku eskola biziberritu duzuela esan daiteke.**

Ni orduan ez nintzen entrenatzailea, baina ikasle nahiko gutxi zeuden. Orain badirudi pixkanaka eskola gora doala. Aurten ikasle asko izan ditugu, eta datorren denboraldiei begira bide horretatik jarraitzea espero dugu.

**Zurekin batera Aitor Mendoza, Javi Gasanz eta Ekhi Olabide aritu dira entrenatzaile. Nola banatu dituzue taldeak, mailaka?**

Atletismoan kategoria ezberdinak daudenez, gutxi gorabehera maila horietan banatu ditugu taldeak, eta entrenatzaile bakoitza kategoria batekin egon da lanean. Ni nagusienekin, kadete eta jubenilak direnekin, atletismoan 18 urtez azpikoak eta 16 urtez azpikoak direnak.

**Nolako harrobia du Dantzaleku Sakanak?**

Entrenatu ditudan gazteak gustura ikusi ditut, eta gainontzeak, txikiak ere oso pozik. Askok ikasi dute. Entrenatzaile guztiek egindako lanarekin kontentu nago. Atletismo eskolako gaztetxoak guztiz motibatuta daude.

**Aurten Nafarroako lasterketa askotara Dantzalekuko talde ederra joan zarete lehiatzera. Nafarroako Federazioak ere azaldu du poztekoa dela berriro ere Dantzaleku kluba sendo ikustea. Halakoak gustura hartuko dituzue.**

# "Ikasle asko izan ditugu, eta bide horretatik segi nahi dugu"

**FERMIN AZKARGORTA GALARZA** DANTZALEKU SAKANA ATLETISMO ESKOLA

**ATLETISMOA** Dantzaleku Sakana atletismo eskolak etorkizuna du. Larunbatean 180 gaztetxok hartu zuten parte I. Sakanako Atletismo Egunean eta pozik dago Azkargorta



Fermin Azkargorta Sakanako Atletismo Egunak izandako harrerarekin pozik zegoen.

Jakina. Kategoria txikietatik lasterketetara Dantzalekuko haur asko joan dira, 20tik gorako taldea inguru. Klub batendako 20-25 korrikalarik parte hartzea asko da. Kategoria nagusietan, kadeteetan eta jubenetan, gehiago kosta egiten zaie animatzea, baina hori gainontzeko klubei ere gertatzen zaie. Adin horiek zailagoak dira. Baina txikiak oso animatuta egon dira.

**Dantzalekun antolatutako lehenengo Sakanako Atletismo Egunak harrera bikaina izan zuen. 180 haur eta gaztetxok eman zuten izena. Jende asko erakarri duzue.**

Sakanako Atletismo Eguna antolatu genuen Sakanako jende gehiagok atletismoa ezagutzeko. Atletismoa ez dela soilik korrika egitea erakusteko, batzuk pentsatzen duten bezala, baizik eta modalitate asko ditugula. Eta argi ikusi da. Sakanako Atletismo Eguna ospatu aurretik ikastetxeetatik pasatu ginen informazioa banatzera, neska-mutikoak animatzeko, eta nik uste oso ongi ateratzen dela. Dantzaleku atletismo eskolan 66 ikasle ditugu, eta larunbatean 180 etorri ziren, hirukoitza.

**"MONREAL, PEREZ ETA BERMEJO ATLETEK ONGI PASATU ZUTEN, ETA HAURREK, ZER ESANIK EZ"**

**Sakanako Atletismo Egunean zein modalitate landu zenituzten?**

Lehenik eta behin kros bat egin genuen Dantzalekuko merenderoetan eta inguruetan, eta oso parte hartzailea izan zen. Ondoren, neska-mutikoak bi taldetan banatu genituen, handiagoak batetik, eta txikiagoak bestetik. Jaurtiketak futbol zelai zaharrean egin genituen: disko jaurtiketa, pisu jaurtiketa, vortex jaurtiketa eta jabalina. Vortexa, txikiak jabalina entrenatzeko erabiltzen dugu. Pilota moduko bat da, errugbi baloi baten antzekoa, baina luzea, eta jabalina baten moduan jaurtitzen da. Dantzalekuko pistetan luzera saltoa egin genuen fosotan, arearekin, harresi lasterketa batzuk, eta, bukatzeko, erreleboak.

**Dantzalekuko gain, kategoriako monitoreak izan zenituzten: Iñigo Monreal, Iñigo Perez eta Nerea Bermejo. Maila horretako kirolariak topaketari distira eman zioten.**

Bai, eta haurrak, halako atletak hain hurbil izatean oso motibatu zeuden. Hirurei eskatu genien neska-mutilei jaurtiketetan, saltoetan eta gainontzeko proban laguntzeko, jaurtiketak nola egin behar diren erakusteko, posturak, jarrerak... eta asko inplikatu ziren. Beraiek ongi pasatu zuten, eta haurrek zer esanik ez. Erreferente diren halako atleta puskegin aritu izanagatik oso pozik zeuden. Polita izan zen.

**Dantzalekun ikasturtean atletismoaren modalitate ezberdin horiek landu al dituzue zuen egunerokoan?**

Ez nuen uste bestelako modalitateek halako harrera beroa izango zutenik, baina hala gertatu da. Kroseko denboraldi hasieran lasterketetan aritzera animatu ziren, eta pentsatzen nuen ondoren pistan ez zirela horrenbeste arituko, baina ibili dira. Orain dela gutxi Nafarroako Txapelketa izan genuen, eta 14 urtez azpiko mailako salto hirukoitzean hirugarren sailkatu zen Dantzaleku eskolako kide bat. Luzera saltoan ere aritu ziren beste batzuk, hesien proba hiruzpalau ateratzen ziren, jaurtiketetan ere... Txikiak Burlatan jokatzeko diren Nafarroako Kirol Jokoetan parte hartu dute sarritan, modalitate gehienetan. Harrera ona izan dute.

**Datorren ikasturterako izena ematea zabalik dago, 012 telefonora hots eginez. Nola aurreikusten duzue?**

Ez dakigu 70, 100, 120... zenbat ikasle izango diren. Epea bukatzen denean ikusiko dugu, guztia aztertu eta horren arabera erabakiak hartuko ditugu. Pentsatzen dut egungo monitoreek datorren denboraldian ere jarraituko dugula. Aitorrekin hitz egin dut, eta bera jarraitzeko gogotsu dago. Asko lagundu dit. Gainontzekoekin hitz egitea falta zait.

### Osasun betean dago Dantzaleku.

Bai, eta horrela jarraitu dezala. Oso pozik gaude. Orain atsedean hartuko dugu, beharrezkoa baita, eta irailean bueltatuko gara guztia prestatzeko, eskolak urrian hasiko baitira.



Sakanako Atletismo Eguna krosarekin hasi zen.



Disko jaurtiketa.



Jabi Gasanz, xabalina jaurtiketa nola egin behar den azaltzen.



Pisu jaurtiketa egiteko jarri beharreko postura erakusten.



Pisu jaurtiketa ederra.



Bukaeran, erreleboak. NAGORE ARRUTI



Luzera jauziekin interes handia piztu zuten. NAGORE ARRUTI



Mulu Kinfe Hailemichael, aurrean. RURAL KUTXA-ALEA

## Mulu Kinfen Hailemitxaelen lehen garaipena

**TXIRRINDULARITZA** Etxarrin bizi den Rural Kutxa-Aleako txirrindulariak afizionatuen San Martin Proba irabazi du

**Maidar Betelu Ganboa** ETXARRI ARANATZ Etxarri Aranatz bizi da Mulu Konfen Hailemitxael txirrindulari etiopiarra. Egoi Martinezen familia bere egin du. Txirrindularitza profesionala utzita, egun txirrindularien ordezkaria da etxarriarra, eta hortik izan zuen Muluren berri. "Muluk idatzi zidan eta berarendako Delko taldea lortu genuen Frantzian. Baina pandemia iritsi zen, etxera itzuli eta Etiopian gerra hasi zen, eta itzuli eta taldea desagertu zen. Aurten Rural Kutxa-Alea afizionatuen taldean hasi da, profesional izateko ametsarekin" azaldu zuen Egoi Martinezek GUAIXEN urte hasieran egindako erreportajea.

Denboraldi polita egiten ari da Mulu. Gustura dago Etxarri Aranatz, lasai, eta bere errendimenduan nabaria da. Afizionatuen Nafarroako Itzulian ihesaldietan ikusi genuen -San Migel-

go igoerari ihes eginda zegoela ekin zion-, larunbatean Beasaingo Loinaz Proban hirugarren izan zen, eta hurrengo egunean, igandean iritsi zen unerik gozoena, Ataungo San Martin Proba irabazi baitzuen, merezitasun handiz, bere taldekide Joseba Lopez Cuestaren aurretik.


### Etxeberriaren eroriko larria

Rural Kutxa-Seguros RGA taldeko txirrindulari iturmendiarrak eroriko larria izan zuen Ronde de Loise jokatzeko ari zela. "Guztia ongi zihoan, hankak inoiz baino hobe zebiltzan, eta, bat batean, guztia geratu zen. Ez dakizu halakorik noiz helduko zaizun, baina aurrera begiratzea, ez dago besterik" azaldu du Etxeberriak. Ebakuntza egin behar izan zioten, lau ornoen hausturarengatik, "baina guztia ongi ateratu da. Eskerrik asko animoentatik" gaineratu du.



25. ALTSASU BTT ZEHARKALDIRAKO GOGOTSU

Igandean 9:00etan abiatuko da Altsasu BTT Zeharkaldiko "ediziorik bereziena". Barrankak antolatuta, 700 biker espero dira. Hiru ibilbide aukeran.



GORKA IZAGIRRE DAUPHINÉN, IMANOL ERBITI ETXEAN

Dauphiné Tourra prestatzeko ezinbestekoa da. Imanol Erbitik erorikoa izan zuen eta etxean dago osatzen, baina Gorka Izagirrek proban segitzen du.



Benjumea, Garcia de Eulate eta beste triatloilari bat, L'Ametlla de Marren. ROGER MARTI

## Garcia de Eulate eta Motino, merezitako podiuma Tarragonan

**TRIATLOIA** L'Ametlla de Mar Half Triatloian lan bikaina egin zuten Sakana Triatloi Taldeko altsasuarrek

**Maidar Betelu Ganboa** ALTSASU  
Igandean Triatlon L'Ametlla de Mar (Tarragona) jokatu zen, hiru distantzian: olimpikoa, aqua-bike eta half. Hain zuzen ere, azken distantzia honetan, luzeean, lehiatu ziren Sakana Triatloi Taldeko Sergio Garcia de Eulate Maia eta Felix Benjumea Motino altsasuarrek. 1,9 km igerian, 90 km bizikletan eta 21 km korrika osatu behar izan zituzten.

### Nahastea

Correlibre taldeko Juan Miguel Estebanek lehen sektoretik, igeriketatik, hartu zuen aurrea. Felix Benjumeak bigarren postuan ekin zion txirrindularitzako tarteari, eta Garcia de Eulate beranduago hasi zen, igeriketa tartea gehiago kostatuz. Bizikletan hobe dabilenez, tarte horretan postuetan gora egin zuen. Azken sektorean, korrika-koan, gertatu zen nahasmena.

Bukaera aldera Estebanek lehen postuari eusten zion, Benjumea bigarren zela, eta Garcia de Eulate atzetik zetorren. Baina helmugara tira beharrean, Benjumea okertu zen eta aurrera egin zuen, korrikako zirkuitua berriro ekin. Akatsaz konturatu eta helmugaratu zenerako, beste hiru korrikalari iritsi ziren bere aurretik helmugara, tartean Garcia de Eulate, bigarren sailkatu zena (4:32:06), Juan Miguel Esteban irabazletik hiru minutu eta erdira (4:28:37). Benjumea bosgarren sailkatu zen (4:43:28). Hala ere podiumera igo zen altsasuarra, lehen bost onenak saritu zituztelako.

"Aste guztirako jaitsi ginen Tarragonara, biak elkarrekin, eta ezin hobe pasa genuen. Nahaste horrek, ze amorrua. Dena den, niretzat, Felix bigarren izan da eta ni hirugarren. Horrekin gertatzen naiz" aitortu du Garciak.



21 urtez azpiko eta kadeteen mailako Espainiako Txapelketan parte hartu zuen Bargagaingo bederatzikotea. BARGAGAIN

## Bargagain, Nafarroako taekwondo klub onena

**TAEKWONDOA** Nafarroako Taekwondo Federazioak talde sakandarra 2021eko talderik onena izendatu zuen eta Leire Etxanizi aipamena egin zion, Espainiako 2021eko txapelketan zilarrezko domina lortu izanagatik

**Maidar Betelu Ganboa** ALTSASU  
Ereindakoaren uzta jasotzen jarraitzen du Gerardo Montero Rivera entrenatzaileak zuzentzen duen Bargagain Taekwondo Klubak. Nafarroako Taekwondo Federazioak lan horri aitortza egin dio, 2021eko Nafarroako taekwondo klub onenaren saria eman baitio. "Lizentzia gehien izan zituen kluba izan ginen, gehien hazi zena eta estatu mailan domina gehien lortu zituena. Horregatik eman digute saria" azaldu du Monterok. Halaber, Bargagain Taekwondo Klubeko Leire Etxanizek aipamena jaso zuen, 2021ean Espainiako Txapelketan zilarrezko domina lortu izanagatik.

### Espainiakotik bi domina

Aurten ere ibilbide oparoa daralma talde sakandarrak. Berriki Espainiako 21 urteko eta kadete mailako Taekwondo Txapelketa jokatu zen, eta Bargagaingo bederatzikoteak taekwondistek hartu zuten parte Nafarroako selekzioarekin. "Txapelketa honetan ordezkari gehien izan zuen kluba izan zen gurea" zehaztu du Monterok. Kadete mailan brontzezko domina lortu zuten Bargagaingo Leire Etxanizek eta Rania Mabchourrek, eta Aiala Dorronsoro bosgarren izan zen. "Aipatzekoa da Erkuden Moreno eta Irati Irigoien ere bosgarren sailkatu zirela, dominagatik borrokatzeko atarian" gaineratu

du entrenatzaileak. Espainiako Txapelketan ere Joseba San Miguelek, Zoe Martinek, Aaron Rodriguezek eta Mohamed Es-sobaik hartu zuten parte. Azken hau lehenengoz aritu zen Nafarroako selekzioarekin.



Montero eta Etxaniz, sariek. BARGAGAIN

## Kopa Nazionaleko finalerdia ez delako egunero jokatzen

**FUTBOLA** Altsasuk Osasunaren kontra jokatuko du Jubenilen Kopa Nazionaleko finalerdia, Lakuntzan

Lakuntzako Zelai Berrik partida berezia hartuko du larunbatean, 11:00etan: Jubenilen Maila Nazionaleko Kopako lehen finalerdia. Jubenilen Maila Nazionalan lehiatzen den Altsasuk eta Jubenilen Ohorezko Maila Naziona-

lean lehiatzen den Osasuna A taldeek jokatuko dute finalerdia hori. Beste finalerdia Osasuna B-k eta San Juan A-k jokatuko dute, Leitzan, eta bi irabazleek igandean jokatuko dute final handia, 11:00etan, Etxarrin.

Altsasu Kirol Elkartek Lakuntzara joateko deialdia egin die bere zaleei, Altsasu animatzeko. Finalerdietara sailkatzea handia izan da Altsasurendako, baina finalean egotea sekulakoa litzateke, kontuan hartuta Osasuna A-k kategoria bat gorago jokatzen duela, Ohorezko Maila Nazionalan. Baina orain arte emandako sorpresak ematen jarraitzeko prest dago Altsasu, eta mimo handiz prestatu dute finalerdia, igandean Etxarri Aranatzan egon nahi dutelako.



Altsasuko gazteen edo jubenilen taldea. ALTSASU K.E.





'Artea Klean' erakusketaren mustutzea. UTZITAKOA

# Iragana, oraina eta geroa artearen bidez islatuta

Andra Mari ikastolak antolatutako Sakanako ikastolen V. Arte Proiektuaren 'Artea Klean' erakusketa mustu zuten ostiralean, eta bihar arte ikusgai egongo da Arbizuko udaletxean. Aurten 'Street Art'-ean oinarritu dira artelanak egiteko.

ARBIZU

"Denboran zehar gure herrieta-ko espazioek (edo ohiturek) zer nolako aldaketak jasan dituzte? Denboraren poligrafoa harturik, zein etorkizun irudikatzen dugu?". Bi galdera hauek erantzunez Sakanako ikastoletako ikasleek Andra Mari ikastolak antolatutako V. Arte Proiektuaren erakusketa osatu dute: *Artea Klean*. Maiatzaren 3an mustu zuten eta egunotan ikusgai egongo da Arbizuko udaletxean. Gaur eta bihar, ikastolaren festan, ikasleek sortutako artelanak ikusteko aukera izanen da.

Duela hamar urte sortu zuten Arte Proiektua deitutako ekimena Sakanak ikastolek; Andra Mari, Iñigo Aritza eta Txioka Haur Ikastola. Proiektua bi urtetik behin egiten dute; gai edo hainbat sortzaile oinarri hartuta ikasleek artelanak egiten dituzte, eta egindako lanekin erakusketa bat egiten dute. Helburua "eremu artistikoari bultzada ematea eta Ikastolako Hezkuntza Komunitatearen garapenean" islatzea da.

Bost edizioetan Sakanako artistak, Sakanako idazleak, Saka-

nako musikariak, *BirziklART* hondakinak birziklatzea eta berrerabilpena eta, aurtengoa, artea kalean gaiak jorratu dituzte. *Street Art* edo kaleko artean deitutako diziplinan oinarritu dira, ikastolaren xedea, azaldu dutenez, "herriarengandik gertu egonez, inguruari ahal duen guztia eskaintzea" delako.

## Artea Klean

Arbizuko udaletxean mustu zuten eta ikusgai dagoen erakusketan Haur Hezkuntzako Etxarri Aranazko eta Arbizuko bost urteko taldeak *Parke magikoa* deitutako lana egin du. Lehen Hezkuntzako lehenengo mailako ikasleek *Gure herriak atzo, gaur eta bihar* deitutako artelana egin dute, baita hirugarren mailakoek ere izenburu berdina duen lana sortu dute. Bosgarren eta seigarren mailakoek *Geometric disc* lana egin dute. DBHko lehenengo eta hirugarren mailakoak jolasetan eta jokoetan oinarritu dira, eta *Jolas zaharrak, argazki berriak eta Etorkizuneko joko-jolasak* lanak sortu dituzte, hurrenez hurren.



BAZTERRETIK

MIKEL MAIZA RAZKIN

## Bartzelonako komiki azoka

Kaixo, lagunok! Elkartu ginen azkenean kontatu nizuen bezala, bi urteren ondoren Bartzelonako komiki azoka ospatu zen. Urteak nituen komiki azoka batera joan gabe, beraz, oraingoan ezin nuen huts egin. Ilusio handiz agertu nintzen Bartzelonako Firan. Han ospatzen da azoka gaur egun, baina lehenengoz antzoki txiki batean izan zen, eta gero tren geltoki batean. Ez da txantxa, argazkirik ez balego nik ere ez nuke sinistuko.

Bartzelonako Fira toki erraldoia da. Denetariko feriak eta azokak jasotzen ditu urtean zehar. Sarrera pasatu eta asfaltozko zelai zabala aurkitu nuen nire aurrean. Eskuinean, pabiloi txikiaren sarrera eta aurrean handiarena. Bi aldetan jatekoa

saltzen duten furgonetak. Han gertu, mahai batzuk eta zelaiaren erdian kristal birziklatuz eraikitako estatua bat, Mortadelo eta Filemonen omenez.

Pausua arindu nuen eta pabiloi handira jo nuen. Pabiloi handia bitan zegoen zatituta. Lehen zatian komiki saltzaile eta argitaletxe txikiak zauden. Han eskaintza berezien bila ibili nintzen eta ezetz asmatu zer aurkitu nuen: *Cowboy alienen aurka* komikia, 3 euroren truke. Komiki honetaz behin hitz egin nizuen eta artikulu hura oroitzen baduzue, jakinago duzue jada 3 euro garestia iruditzen zaidala... Handik ihesi, Cornoque argitaletxearen postua aurkitu nuen. Han komiki bat erosi eta haren autoreek

sinatzea lortu nuen, Azagra eta Revuelta handiek.

Mila postutik ibili ondoren eta besapean komiki pare batzuekin erakusketetarantz jo nuen. Bartzelonako komiki azokak 40. urteurrena ospatzen zuen eta lehen erakusketa lehenengo hari eskaini zioten. Bigarren erakusketa batek komiki espainiarraren eta haren historia jasotzen zuen. Ba al zenekiten Espainiako lehen komiki azoka Asturiasen ospatu zela 1973an? Nik ezta ere.

Beste hainbat erakusketa eta postu interesgarri aurkitu nituen, baina tokirik gabe geratzen ari naiz. Horregatik, zuen kabuz komiki azoka batera inoiz joatera gonbidatzen zaituztet, nik bizitakoa bizi dezazuen. Ez zarete damutuko.



UTZITAKOA

## Margolarien mustutzea

Olaztiko margo ikastaroaren lanen erakusketa egin zuten ekainaren 5ean, igandean, Olaztiko kultur etxean. Erakusketan hamabi ikasleek tailerlean ikasturtean zehar egindako margolanak ikusteko aukera egon zen: margo teknika desberdinetan egindako paisaiak, erretratuak; koloredunak, txuri beltzean... Irakaslea Ana Pellicer izan zen.

# Mugiarazteko prest daude

Bi urte hauetan La Topadora taldeak abesti berriak prestatu ditu. Oinarrian festa musika dago, baina taldearen ezaugarrietako bat esperimentazioa da. Oholtzara igotzeko gogotsu daude. Ekainaren 17an kontzertua eskainiko dute, Olatzagutian.

**Erkuden Ruiz Barroso** ETXARRI A.

La Topadora taldearen historia laburra baina intentsoa da: 2019. urtearen amaieran aurkeztu zuten Enrikko Rubiños, Ruben Anton, Errotzen bizi den Javiero Etxeberria eta Etxarriko Luisillo Kalandraka musikariek taldea. *Voy con todo* lehenengo diskoa kaleratu zuten. "Kafe Antzokian eman genion birari hasiera, primerako eguna izan zen, 'hau eginga dago' pentsatu genuen, hamabi edo hamahiru bolo itxita genituen". Oso ongi joanen zela uste zuten. Baina astera pandemiaren kontu guztia iritsi zen. "Donostiko Fnac-en emanaldi akustiko bat eman genuen, eta hurrengo astean Gasteizkoan eman behar genuen. Baina dagoeneko Gasteizko ospitalean hasi ziren esaten Covid kasu asko zeudela eta abar". Dena bertan behera gelditu zela azaldu du Luisillo Kalandrakak.

Pandemiako bi urte hauetan La Topadora ez da geldirik egon eta bigarren diskorako abestiak prestatzen aritu dira. Abestiak "pixkanaka ateratzen" joanen dira. Momentuz, bi kaleratu dituzte: *Vamos primo* eta *Al calor*, duela bi aste inguru. "Uda jotzen pasako dugu eta gero beste zenbait abesti aterako ditugu". Ekainaren 17an, heldu den ostiralean, 20:00etan, kontzertua eskainiko dute Olatziko Barandi tabernako terrazan. Ondoren, Tafallan, Busturian, Leioan, Bilbon eta abar egonen dira.

**Aurrera**

"Hasieran bajoi handia izan zen. Guk ateratzeko baimena izan genezakeen, baina kolpe ederra izan zen animoz ere. Burua guzak egitera behartu behar genuen". Kontzertu bat dutenean egiteko guztia alde batera utzi eta entsea-



La Topadora taldea. UTZITAKOA

tzera joaten dira, baina konfinamenduen garaian "objektiborik gabe, ezjakintasunekin..." ez ziren elkartzen. Azkenean, pausu bat aurrera eman eta entseatzeko hasia erabaki zuten.

Bi urtetan "zenbait emanaldi" egin dituzte, eta formatu akustikoa landu zuten ere, egoerara egokitzeko. "Baina ez da berdina". Lanak berriz landu zituzten formatu horretara pasatzeko. "Hori egiten ez bagenuen, bazirudien ez geundela. Derrigortuta geunden, nolabait. Bitxia izan zen, hasi zenean dena berriz mugitzen, gero berriz pikutara joan zela, bazirudien mugitzeko taldeok ez genuela lekurik inon; dena zen musika tradizionala, akustikoa, lasaia...". Besteak beste, Nafarroako Gobernuako Nafarroan Biran programan parte hartu zuen La Topadorak, "hasiera batean ongi pentsatuta eta planteatuta zegoen, baina gaizki antolatuta zegoen". Behintzat boloren bat egin zutela esan du musikariak.

**Prest**

Kantak egiteari ez diote inoiz utzi. "Abestiak sortzen ari gara, ez dugu esaten: hiru hilabetetan ez dakit zenbat abesti egin behar ditugu diskoa kaleratzeko, ez; pixkanaka goaz". Momentuz hamar abesti sortu eta grabatu dituzte. "Javiero eta biok beti ari gara audioak elkarbanatzen, guzak sortzen eta elkarri bidaltzen, baina azkenean elkarri behar ginela pentsatu genuen". Abestiak lantzen joan ziren, eta asteburu batean Barandi landa etxera joan ziren abestiak bukatzera eta grabatzera. "Disko fisikoa kanta guztiak atera ondoren argitaratuko dugu, seguruenik".

La Topadora taldearen bereizgarrietako bat doinuekin esperimentatzeko duen beharra da. "Lehenengo diskoaren eta orain kaleratuko ditugun abestiak desberdinak dira, aldatu dira". Festa estiloa da taldearen oinarria dagoena, "Skalariak eta Vendetta taldekoak garelako entzun daiteke", baina "perla oso bitxiak" daudela azaldu du Kalandrakak. "Hori da gauza, esperimentatzea, bestela aspertzen gara". Etxean abestiak eta abestiak entzuterako esertzen dira, "erritmo bat bilatuz". Erritmo afrikarrak, rockeroagoak, kumbia... "Baina guztiak talde berekoak dira".

Letrei dagokienez, "amorrutzko letrak daude, ingurura gaizki

dagoena begiratzeko eta horrekin apurtzeko oihuak, kontuan izanda mundua pikutara doala, altxatzeko deia... *Naif* izan daiteke, baina azkenean hori da islatu nahi duguna". Bestetik, Gloria Fuertesek bere aitari eskainitako poema baten letra dago ere, eta kolaboratzaileak izanen dituzte ere, Amets Larraza, esaterako. Abesti berrietan La Skandalosa Tripulación taldeari omenaldia egin nahi izan diote berriz, izan ere, taldearen izena, La Topadora, talde argentinarraren abesti batetik dator. "Gure anaiak dira, hasieratik harreman oso ona izan dugu, eta *A toda vela* abestian haien musikan oinarritu gara, erdi erritmora, oso argentinarra". Badira "besterik gabe dantzatzeko" diren abestiak ere.

**'Buenrollismoa'**

*Vamos primo* bigarren diskoa izanen denaren lehenengo singlearen bideoklipa Gure Zirkuan grabatu zuten, Enrikok, bateria joleak, eta Iker Galarza Gure Zirkuko zuzendariak elkarrekin ikasi baitzuten. Zirkua eta mexikarren hildakoen eguneko burezurren makillajeak uztartu dituzte, "heriotzaz ere barre egin behar dugula" adierazteko. Zirkua Mexikoko estetika horrekin nahastea oso ideia ona iruditu zitzaigun. Bideo baterako perfektua zen. Dena dela, "puntazo bat izanen balitz ere", ez dute mexikar estetikarekin jarraituko, "bakarrik bideokliperako izan zen".

*Voy con todo* diskoa kaleratu zutenetik bi urte pasa dira, "baina urte horietan ez da ezer gertatu. Minusetik hastea bezala da". Abestiek iraungitze data dutela uste du Kalandrakak, "nahiz eta abesti batzuk betirako izan, musikak iraungitze data du. Batzuetan lehengo abesti bat har dezakezu, baina beste ukitu bat ematen diozu. Denbora pasa da, eta ikasitakoa emanen diozu abestiari ere". Horregatik "zerbait berria" eskaini behar zutela uste du. "Pena bat da, nire ustez bizitzan egin dudako diskorik onena delako". Kontzertuetan bi diskoen abestiak uztartuko dituzte.

**'PERLA OSO BITXIAK DAUDE; NAHASTEA GUSTATZEN ZAIGU, BESTELA ASPERTZEN GARA'**

# "Gogorra da urtetako lana hiru egunetan erakustea"

Batxilergoko ikasleek atzo, osteguna, despeditu zituzten Unibertsitatera sartu ahal izateko selektibitateko azterketak. Susana Igoa Etxarri irakasleak, berriz, astelehenerako zuzendu behar ditu gaztelania eta literatura II azterketak

Maidar Betelu Ganboa ETXARRIARANATZ

## 1 Altsasu Institutuko gaztelania eta literatura irakaslea zara.

Duela bi urte Altsasu Institutuan hasi nintzen irakasle, Batxilergoan lehen aldiz. Joan zen urtean Irurtzunen aritu nintzen, eta aurten berriz ere Altsasu Institutuan nago. Aurretik Korazonistetan irakasle izan nintzen, zazpi urtez.

## 2 Selektibitateko azterketak zuzenduko dituzu, bigarrenaz.

Unibertsitatetik irakasle boluntarioak eskatzen dituzte. Baldintza bakarra da Batxilergo bigarren mailako irakaslea izatea. Gaztelania eta literatura II. irakasgaia zuzenduko dut irakasgai horretako irakaslea naizelako, baina nik, berez, Ingeles Filologia ikasi nuen. Korazonistetan gaztelera irakasle hasi nintzen eta ordutik hala jarraitzen dut.



Susana Igoa Etxarri, asteartean NUP-en, selektibitateko lehen egunean. UTZITAKOIA

## 3 Zergatik animatu zinen selektibitateko irakasle izatera?

Nire ikasleak zertarako ari nintzen prestatzen gertutik bizi nahi nuelako aurkeztu nuen nire burua. Kezka hori nuen, ikasleak ongi prestatuko ote nituen, eta asko ikasi nuen: esperientzia eta segurtasuna lortzen duzu, ondoren zuk hobeto irakasteko. Badakizulako zertarako ari zaren.

## 4 Zein izango da zure lana?

Selektibitateko azterketak zaindu eta gaztelera eta literatura II irakasgaiko azterketak zuzendu. Gaztelera azterketa lehen izaten da, proba luzea delako: testu iruzkina, literatura... Bukatzeko, erreklamazioak badaude, haiek aztertu eta erantzun.

## 5 Zenbat azterketa zuzendu beharko dituzu?

170-180 inguru, ekainaren 13rako. Ongi antolatuta, goizetik gauera zuzentzen ariko naiz. Zuzentzeko plantila bat dugu, aurretik irakasleok adostu duguna, guztion ekarpenak jasota. Hari segika egiten dugu.

## 6 Zure selektibitateaz zein oroitzen duzu?

Gogoan dut ikasturtea dezente samar egin nuela, eta iruditzen zitzaidala selektibitateko dena berriz ikasi behar izatea erokeria zela. Argi nuen ezin nuela guztia berriz ikasi, eta lasai joan nintzen. Oroitzapena, topera ibilitako hiru egunena da. Dena den, uste dut gure garaian ez genuela horrenbeste presiorik, nota eta media jakina lortu behar izatea, ez dakit non eta zer ikasteko. Iruditzen zait orain askoz ere lehenago hasten direla kezka horrekin. DBH4an askok oso garbi dute nora joan behar diren eta zer media behar duten.

## 7 Gogorra izango da norbait suspenditu behar izatea.

Bai, baina askoz ere gogorragoa da nire ikasleak direnean, selektibitatekoak ez baitira nire ikasleak. Zure tribunalean ezin dira ezagunak egon, aurretik jakinaz behar duzu. Bestalde, selektibitateko zure irakasgaia nota bat da, eta beste irakasgai guztiekin lotuta hortik aterako da batez bestekoa. Gehienek gaintzen dute, baina beste gauza bat da eurek nahi dutena ikasteko adina nota lortu duten.

## 8 Batxilergo gaintzea nahikoa izan beharko litzateke nota hori jartzeko?

Kontua da ea zentro guztiak objektiboak izango ote liratekeen ikasleei nota jartzekoan. Nola bermatuko litzateke objektibotasun edo anonimotasun hori? Hori bermatzeko beste modu bat bilatuko balitz...

## 9 Hala ere, selektibitatea ez al da gehiegizkoa?

Urtetan egindako lana hiru egunetan erakustea oso gogorra da. Gauza asko gerta daitezke: selektibitate egunetan norbait gaixotzea, senitartekoren baten heriotza gertatzea, urduritasunak... denetatik. Hiru egun horietan erabakitzen da urtetan egindako lana, hiru egun dituzu zer dakizun erakusteko eta zer ikasi nahi duzun eta zure bizitzan zer izan nahi duzun jokoan duzu. Ez da oso bidezkoa. Beste modu bat aurkitzea litzateke idealena, baina zein izan daiteke alternatiba? Oso zaila da.

## 10 Egungo ikasleak antolatuagoak direla dirudi. Garai batean azken ordukoagoak ez ote ginen...

Denetatik dago. Gaztelera testu iruzkinak egin behar dira eta, azkenean, hori heldutasun proba bat da. Zeinek irakurtzen duen, zein dago gaurkotasunean sartuta, irratia nork entzuten duen... asko nabaritzen da. Gaztelania iruzkin bat egiteko bizitzaren inguruko oinarri bat izan behar duzu, eta hori ezin da azken orduan ikasi, hori lantzen da. Sareetan, webguneetan... sarritan titularrak besterik ez dira irakurtzen, sakondu gabe, eta iritzi bat izan gabe. Eta izugarri nabaritzen da. Bestalde, aurten nabaritu dut ere idazteko abiadura falta dagoela. Badira ikasleak azterketa bat bukatzeko gai ez direnak ere. Idazteko ohitura eta abiadura falta zaie.

## 11 Ez izan zorrotzegia.

(Kar, kar...). Ez nahiz zorrotza, justua naiz. Horretan saiatzen naiz. Unibertsitateko heldutasun bat behar da, eta hau ez da lortzen Batxilergo bigarren mailan. Prozesu bat da, bizitza bera: egunkariak irakurri, irratia entzun, etxean asko hitz egin... begirada kritiko bat behar da, eta heldutasuna horrela lortzen da.

**ITZULPENGINTZA  
ZERBITZUA  
EZAGUTZEN AL  
DUZU?**

Euskarara edo euskaratik itzuli nahi duzun testu horrekin lagunduko dizugu

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

**gk**  
DISEÑUA ETA  
KOMUNIKAZIOA

f □  
619 821 436  
info@gkomunikazioa.eus  
www.gkomunikazioa.eus  
Foru plaza, 23-1. Altsasu

